



Wert erreforma

Eskola, herritar otzanen fabrika



- **Igor Ijurra**, Iruñeko Orfeoiko zuzendaria «Errepertorioak berritu behar ditugu, gazteengan gehiago pentsatuta»
- **Hnaa Edwar** Irakiar Emakumeen Sareko aktibistari elkarrizketa
- **Iñaki Segurola** «Arrazoia eduki gabe etsitzen ikasi behar genuke»
- **Helduen euskalduntzea etorkizunean** Ikaslea gidari, irakaslea bidaide
- **Net Hurbil** Istripu nuklear batek Frantzia porrot ekonomikora eramango luke

lagunekin kantatzea kaleak betetzea belaunaldiak batzea gure kultura... **maite dugulako**

Euskal Kantuzaleen Elkarteak eta **GARA**k elkarlanean
Euskal Herri osoarentzako
kantu liburuxka egin dugu



salgai **GARA**rekin
Martxoaren 16an eta 17an

Euskal Herria
kantuz

GARA





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekari erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko martxoaren 3a, 2.359. zenbakia

ASTEKO GAIA

WERT ERREFORMA Deskalabru pedagogikoa.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

IGOR IJURRA: «Lehen musika norberaren baitan, batez ere ahotsean, zegoen». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

HNAA EDWAR: «Analfabetoa da irakiar emakumeen %40».

KARLOS ZURUTUZA / 16

SOLASALDIAK Gogoetarako gunea sarean.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ITXIERA 10 URTE

GEROAGO GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

SOZIOLINGUISTIKAK EZ DU MARFILEZKO DORRERIK

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 22

ETA ORAIN ZER? PAXKAL INDO / 24

IRRATI BAT ETXEKO BALKOIAN ANDER PEREZ / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Gure zilborra. AMETS ARZALLUS / 22

BERTSO BERRIAK Lekeitioko galarrena. MIREN AMURIZA / 25

ERDIKO KAIERA

IÑAKI SEGUROLA: «Arrazoiak ez luke 'halabehar' izan behar».

MIKEL ASURMENDI / 26

THE ARLOTES Kritika eta ziria helduentzat, marrazki

bizidunen bidez. AXIER LOPEZ / 30

LITERATURA Ustu gabeko iturria. SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

MUSIKA Gaur egungo egoera eta Verdiren ikuspegia.

MONTSERRAT AUZMENDI / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Idazleak saretuz saritu du Maiatzek emakumea. MIKEL

ASURMENDI / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

GASTEIZ 1813 Europaren etorkizuna erabaki zuen

borrokaldia. URKO SÁENZ DE BURUAGA / 39

KORRIKA 18 Nola, noiz, non, norekin... euskara ikasi?

BENITO FIZ, BEA SALLABERRY / 43

AHT LAPURDIN Zundaketak ezkutuan. JON TORNER ZABALA / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Istripu atomiko larri batek Frantzia kiebran

utziko luke. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Deskalabru pedagogikoa

Eduki homogeen eta zentralistetan oinarritutako curriculum espainiarra, ikasle “txarra” lehenbailehen antzeman eta alboratzen duen ibilbidea, ezagutza memoristiko eta akademikoa hobesten eta gaitasunak alboratzen dituen eredu ekonomizista. 180 graduko bira, murrizketez eta euskararen kalterako neurritz hornituta. Horra, PPren gehiengo absolutuak ahalbidetuta, Espainiako Estatuan ezarri nahi duten hezkuntza sistema.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

FAES FUNDAZIOAK –José María Aznar presidente duen think tank popularrak– 2009an argitaratutako *La reforma de la educación escolar* txostenean oinarrituta dago Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE), hortik atera kontuak. José Ignacio Wert Hezkuntza ministroak aurkeztutako erreforma hau frankismoaz geroztik Espainian egindako zazpigarren hezkuntza erreforma da –aurrekoa 2006an egin zuen PSOEk–. Boterera iritsi ahala, irakaskuntza eredu nahieran aldatu ohi du gobernu bakoitzak, politikariak ez baitira gauza hezkuntza sistema egonkortuko lukeen gutxieneko akordiorik adosteko. Werten planak, gainera, gaur egungo hezkuntza helburuen kontrako norabidea hartu du, irakaskuntza tresna neoliberal bilakatu. Xehatu dezagun arloko eragile gehienak asaldatuta dituen erreforma.

“Baliagarri” diren ikasgaiak indartu eta oinarritzko gaitasunak alboratuko dira. “Pertsona bere osotasunean baztertuta geratzen da eta profesional hitza errepikatzen da behin eta berriz, enplegurako prestatzea”, dio Bilbatuak

Oinarritzko konpetentziarik gabeko curriculum

Legeak aditzera ematen duenagatik, eduki kontzeptualen ezagutza izango da nagusi, oinarritzko konpetentziak edo gaitasunak alboratuz. Egungo hezkuntzan ezinbestekotzat jotzen dira oinarritzko gaitasunak eta norabide horretan ari dira European. “Edozein pertsonak bere osotasunean gure gizartean mugitzeko eta garatzeko behar dituen gaitasunak dira –azaldu digu Mariam Bilbatua Mondragon Unibertsitateko irakasle eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktoreak–: ikasten eta pentsatzen jakitea, komunikazio eraginkorra izatea, elkar bizitzen eta elkarrekin lan egiten jakitea... Funtsean da buruz ikastetik egiten ikastera igarotzea, transmisioan

oinarritutako ikas-prozesuak bultzatzen diren proiektuak eta arazoak aztertzea... LOMCEn ez da horren inguruan ezer agertzen, beste norabidean doa sistema, pertsona bere osotasunean erabat baztertuta geratzen da, bigarren mailan, eta profesional hitza errepikatzen da behin eta berriz, profesionalki prestatzea, enplegurako”. Azken finean, hezkuntza merkantilizatu eta ‘baliagarri’ diren ikasgaiak, ikasgai ardatzak, indartuko ditu PPK (Gaztelania, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Geografia eta Historia), eta bere gain hartuko du Madrilek ikasgai horien edukia zehaztea. Azterketetan eduki horiei buruz galdetuko zaie ikasleei eta eguneroan gutxienez ordutegiaren %50 hartuko dute ikasgai ardatzek, eta gainerako ikasgai gehienez %50. Hots, haur eta gazteek

Espainiako Gobernuak finkatutako edukiak ikasiko dituzte batik bat –guztira curriculumaren %65, baina %65 horri eskainiko diote ordu eta ahalegin gehien, ikasgaien hierarkizazioak baldintzatuta–.

“Talentuaren” araberako eskubideak

Ikasleek lehenago aukeratu beharko dute zein bide hartu. Orain, DBH amaitu arte –16 urtera arte– denak elkarrekin daude, baina lege berriak 14 urterekin banatuko ditu: “Guztiek ez dute talentu bera”, azpimarratu du Wertek, eta horregatik errendimendu akademiko baxuagoa dutenak –nota okerragoak ateratzen dituztenak– Lanbide Heziketara zuzendu nahi ditu, eta gainerakoak Batxilergo –unibertsitate–. Unibertsitatean ikasle



NUP

9, 12, 15 eta 18 urterekin, Madrilek ezarritako makroazterketak gainditu beharko dituzte ikasleek, ikastetxeen eta ikasleen artean lehiakortasuna areagotuz. Werten esanetan, "izaera nazional" izango duten eduki homogeneoak ebaluatuko dituzte; "jakin nahi dugu zer ikasten duten eskoletan, eta zer ez". Irudian, selektibitatea egiten, NUPen.

gehiegi dagoela esan du ministroak, eta bahea zorroztu nahi dute, tartean bahe ekonomikoa, tasa eta matrikula unibertsitarioen prezioek gora egin baitute eta laguntza-bekek behera. Eskola porrotari aurre egitea omen da neurriaren helburua, ikasi nahi ez dutenak lehenbailehen lanera –Lanbide Heziketara– bideratzeko, baina eskola-uzte goiztiarra %14,7koa baino ez da Hego Euskal Herrian, eta neurriak ez du zentzurik gurean; aldiz, bereizketa areagotzeko eta ikasle "on" eta "txarren" gaineko espektatiben arriskuan erortzeko balioko du.

Hala uste du Bilbatuak: "LOMCEren beraren filosofian dago bereizketa hori, aipatzen

"LOMCEren beraren filosofian dago bereizketa, aipatzen baitu helburua dela ikasle onak eta txarrak zeintzuk diren identifikatzea, onak potentziatzeko. Baztertzaila eta diskriminatzailea da"

MARIAM BILBATUA, HEZKUNTZAN DOKTOREA

baitu helburua dela ikasle onak eta txarrak zeintzuk diren identifikatzea, onak potentziatzeko. Baztertzaila eta diskriminatzailea da, ikasleek hainbat ebaluaketa gainditu behar dituzte eta horren arabera bide batetik edo bestetik joango dira; ezin dugu ahaztu emaitzak oso lotuta daudela maila sozio-ekonomikoarekin, eta hortaz ikasle guztiek ez dituzte eskubide berberak izango. LOMCEren helburua ez da denak helmuga berberetara iristea, bakoitza, dituen gaitasunen arabera, helmuga ezberdinetara heltzea baizik".

Kontrolerako lau azterketa "nazional", 9 urterekin hasita

Gaur egun, selektibitateak guttiz baldintzatzen du Batxilergoa: urte horietan landu beharreko gaitasun orokorrak jasotzen ditu curriculumak, baina selektibitateko edukien azterketa gainditzera mugatzen da Batxilergoko prestakuntza, hori da jomuga eta xede, eta curriculumak apenas duen lekurik. Irudikatu orain administrazioak ezarritako froga estandar bana 9, 12, 15 eta 18 urterekin egin beharra. Lau errebalida, Madrildik kontrolatuko

WERT ERREFORMA

dituzten ikasgai ardatzei buruzko galderekin, eta azkeneko bi azterketak, derrigorrez gainditu beharrekoak, ikasturtea ez errepikatzen. Selektibitatearekin gertatzen dena aintzat hartuta, ez da zaila aurreikustea ikastetxeen ibilbidea ebaluazio goiztiar hauetara egongo dela zuzendua, etsaminak gainditzeko akademia bihurtzeko arriskupean. Eta zer ebaluatuko dute azterketok? Werten esanetan, “izaera nazionala” –uler bedi espainiarra– izango duten eduki homogeneoak: “Jakin nahi dugu zer ikasten duten eskoletan, eta zer ez”.

Mariam Bilbatuak dio ebaluazioa garrantzitsua dela, ikasleen autonomia eta autoikasketa bultzatzeko edo ikaslea non dagoen eta zer hobetu behar duen antzemateko, baina prozesuaren zati izan behar duela ebaluazioak, tresna eta ez helmuga, eta legea emaitzei dago zuzendua, ikasle “onak” eta “txarrak” bereiztera. Areago, emaitzekin ikastetxeen rankinga plazaratzeko asmoa du Gobernuak. “Txilen eta hezkuntza sistema oso neoliberala ezarri den

lekuetan ikusi dugu: haur hezkuntza amaitzen denetik egiten dituzten ebaluazioekin eskolen rankingak osatzen dituzte eta eskolek kalifikazioaren arabera jasotzen dituzte laguntzak. Dena bihurtzen da lehia eta lasterketa, bai ikastetxeentzat eta bai ikasleentzat”.

Neurri horiek ere, handitu egingo dituzte haurren arteko ezberdintasunak. Eredutzat hartu ohi den Finlandiako hezkuntza sisteman, adibidez, ez dute ebaluazio goiztiarrik eta ekitatean oinarritzen dira, ibilbide osoa dago prentsatua ikasle guztiak emaitza onak lor ditzaten, gaitasunak garatzea pertsonen eskubidea dela ulertzen baitute. Erreforma espainiarrarekin, ordea, arriskua dago gutxi batzuek nota altuak lor ditzaten eta beste askok baxuak, lehiakortasuna eta bereizketa sustatzen baitu. Ez dirudi haurren erritmoa errespetatuko denik, ibilbidea planteatzen delako “gainditu beharreko lasterketa gisa”, dio Bilbatuak. Gainera, lasterketa horretan sistemak duen erantzukizuna ez du aipatzen erreformak. “Legea irakurrita

Selektibitatearen adibidea aintzat hartuta, ez da zaila aurreikustea ikastetxeen lana ebaluazio goiztiarretara egongo dela zuzendua, etsaminak gainditzeko akademia bihurtzeko arriskupean



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS



ULY MARTIN

Irakasleak espero duen erantzuna ematen dakien ikaslea sarituko du eredu berriak, baina ez bere kabuz pentsatzen dakiena. Goiko argazkian, Espainiako Gobernuaren delegaritzordearen aurrean protesta; behean ezkerrean, Hego Euskal Herriko hezkuntza eragileak, sistema propioa aldarrikatzen; eskuinekoan, ikasleen manifestazioa Madrilan.

ematen du erantzukizuna ikaslearena baino ez dela, sistemaren ardura ez balitz bezala helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta neurriak ezartzea”.

Aipatzekoa da curriculumak Mundu Garaikidearen Historia kendu eta Espainiaren Historia sartu nahi duela. Halaber, PSOEk aurrera atera zuen Herritartasunerako Heziketa ezabatu eta Erljioa hautatzen ez dutenentzat derrigorrezko ikasgaia ezarriko du: Balio Kultural eta Sozialak Lehen Hezikuntzan eta Balio Etikoak DBHn –orain arte curriculumeko ikasgaiak indartzeko aprobeztatzen zuten ordu hori–. “Berdintasun mailan, hezkidetzan, aniztasunaren trataeran... urte hauetan eman diren urratsak bertan behera uzten ditu legeak, ez dator bat Europako hezikuntza eragileen plateamenduarekin”, dio irakasleak.

Zer motako ikaslea ekarriko du eredu honek? Bilbatuaren hitzetan, ikasketa memoristikoa oso lotuta dagoen intelijentzia mota bultzatuko du, buruz ikastera ohituta dagoen ikaslea, gauzekin erlazio sakonak ezartzeko ohiturarik ez duena, gaitasun gutxi duena abstrakzio maila handiko testuak idazten... Alegia, “irakasleak espero duen erantzuna ematen dakien ikaslea, baina ez bere kabuz pentsatzen dakiena, ez egoera zailen aurrean estrategiak identifikatuko dituena. Hezikuntza eredu honek ez du balio gaur egungo gizarteak dituen eskaerei erantzuteko”. Herritarrak bizitzarako prestatzen dituen heziketa integrala eskaini baino, iritzi kritikoa, kultura eta ikerketa garatu baino, badirudi legeak nahiago dituela lehenbailehen lanbide batera edo bestera bideratuko dituzten subjektu pasibo eta otzanak.

Zuzendariari boterea, ikastetxeen autonomia kamusteko

Ikastetxeari autonomia emango zaiola dio LOMCEk, baina autonomia hori zuzendariaren menara egongo da: profesionalizatu egingo da zuzendaritza, Madrildik hautatuko dute zuzendaria bera, eta eskolakomunitatearen parte-hartzea hutsaren hurrengoa izango da, guraso, irakasle, ikasle eta gainerako eragileen ahalmena kontsulta-mailara zokoratuko baitu. “Horri gehitzen badiogu Espainiako Gobernuak ezarritako

Euskara, hirugarren mailako

GAZTELANIA bermatu beharko dela dio LOMCEk, eta gaztelania nagusi den ereduak ikasi nahi duenari zentro pribatua ordainduko zaiola. Katalunian protesta erraldoia egin zuten eta han duten murgiltze ereduak ez dutela aldatuko erantzun du Generalitateak. Gurean, gaztelaniaren eta hizkuntza koofizialaren arteko oreka eskatzen duenez legeak, ikusi beharko da D ereduak orekatuz joko al duten. Euskara, gainera, espezialitatea izango da, hirugarren mailakoa, ikasgai ardatzen eta aukerazkoen atzetik. “Abiapuntua ez da errespetua eta legearen puntu guztietan antzematen den filosofia da gaztelania dela nagusia, indartu beharrekoa, eta eleaniztasunari ematen zaion definizioa erabat lotuta dago atzerriko hizkuntzekin. Eredu desorekatu eta desegokia sustatu nahi dute”, diosku Mariam Bilbatua irakasleak.

azterketak izango direla neurgailu, praktikan ikastetxeak oso autonomia gutxi izango du hezikuntza proiektu propioa aurrera ateratzeko”, azpimarratu du adituak.

Molde jakin bateko hezikuntza pribatua ere bultzatzen du erreformak. Legeak orain dio

Gabriel Aresti euskaltegia

ASTE SANTUA 2013

Umeak eta gazteak
Antzerki koloniak / Jolas koloniak
 6 -12 urte / Bazkaria barne (Kafe Antzokian)

Musika sorkuntza eta DJ laborategia
 13 - 16 urte

Helduak
Barnetegiak
Bakaikun (Nafarroa)
Bilbon (lo etxean)
 16 urtetik aurrera

Done Bikendi 2, 4. - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com

Gastu itzela eta murrizketak

EUSKO JAURLARITZAK eta Nafarroako Gobernuak hezkuntzari egindako murrizketekin aski ez, eta Espainiako Gobernuak iragarri du arlo honetan 10.000 milioi euro murriztuko dituela 2015 urtera bitartean. Neurri batzuk dagoeneko azalduak ditu José Ignacio Wert ministroak: ikasgelako haur kopurua handitzea, irakasleek eskola ordu gehiago ematea, ordezkapenak gutxitzea... Inbertsioa murriztearekin batera, LOMCE inplementatzeak ekarriko duen gasua ez da makala izango: azken datuen arabera, bi ikasturtetan 408 milioi euro ordainduko ditu Madrilak eta beste 927 milioi euro erkidegoek –hasieran adierazitakoaren boskoitza-. Erkidegoetako gobernuek alarma gorria piztu dute, zifra horiek ezagutu ostean.



plaza publikoa haur ororentzat bermatu beharra dagoela, baina oinarri hori desagertu egin da LOMCEn eta sexu bereizketa egiten duten ikastetxeak kontzertatzera –eta gutxienez sei urteko kontzertazioa lotzera– derrigortuko ditu. Ondorioz, eskola horiei diru-laguntzak eman beharko dizkiete Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, nahiz eta Espainiako Auzitegi Gorenak aurretik baimendu zuen ikastetxeok kontzertaziotik at uztea, baztertzailak direla egotzita.

Aurre egiteko aukerarik?

Lege organikoak aurrera jarraitzen du eta popularrek ez dute atzera egiteko asmorik. Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute eskumenik legea ez betetzeko –gogoratu botiken berrordainketarekin gertaturikoa, Konstituzio Auzitegiak Espainiako Gobernuaren alde egin zuen– eta makroazterketek ekarriko duten inertziari aurre egitea zaila izango zaie ikastetxei. Hala ere, plantoa beharrezko ikusten du Bilbatuak: “Atzerapauso handia da ikuspuntu guztietatik, ez ditu pertsonon aniztasuna eta ezberdintasunak errespetatzen, ez ditu eskubide indibidualak errespetatzen, ezta eskubide kolektiboak ere, herri bezala gure hizkuntzaren biziraupena eta kulturaren transmisioa bermatzeko dugun eskubidea. Hezkuntza komunitate osoak eta gizarte osoak kontra egitea espero dut”. PPren gobernupean ez dauden erkidegoak, behintzat, aurka ditu LOMCEk, eta PPren esku dauden zenbaitek ere protesta egin du, batez ere ekonomikoki erkidegoei ekarriko dien gastuagatik. Hasierako zirriborroan zeuden

Ikastetxearen autonomia zuzendariaren menara egongo da. Madrildik hautatuko dute eta eskola komunitatearen parte-hartzea hutsaren hurrengoa izango da

gauza batzuetan amore eman du Wertek; esaterako, Lanbide Heziketara bideratutako ikasleak DBHko titulazio gabe utzi nahi zituzten edota Espainiako Konstituzioa goratzea helburu zuen ikasgaia eman nahi zuten, baina eskuineko alderdikideei beraiei gehiegikeria iruditu zitzaion.

Negoziaketak negoziaketa, erreformak ez duela aldaketa gehiago jasango eta Diputatuen Kongresura bere horretan eramango dutela iragarri du ministroak. Estatu Kontseilutik eta Ministrotuen Kontseilutik igaro ostean iritsiko litzateke erreforma Kongresura, eta ez dezagun ahaztu, PPK gehiengo absolutua du lege organikoa arazorik gabe onartzeko. Apirila-maiatzean gerta liteke, baina Madrilgo Gobernuak ez du argi utzi hurrengo ikasturterako martxan nahi duen eredu berria, ala 2014-2015 ikasturterako.

Erreformaren nondik norakoak ezagututa, nekez irudika daiteke hezkuntza arloko aditurik halako eredu aholkatzen. Horixe bera esan diogu Mariam Bilbatuari, nola egin liteke halako baldarkeria? Baldarkeria ez, erantzun digu berak, oso ondo pentsatutako hezkuntza sistema baizik: “Erabat lerrotatuta dago PPK garatu nahi duen gizarte ereduarekin, ez dugu ahaztu behar erreforma ideologia eta gizarte antolakuntza molde zentralizatu batetik datorrela, aniztasuna –kulturala nahiz pertsona– errespetatzen ez duena, bereizketan eta lehiakortasunean oinarritua. Hezkuntzan jarraitzeko eskubidea eta botere ekonomikoa gutxi batzuek baino ez dezatela izan bultzatzen duen gizarte bermatu nahi dute”. ■

CRISTINA URIARTE
EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBURUA

«Arduragabekeria litzateke mahaitik jaikitzea, ikuspuntuak hurbiltzeko unea da»

Zein da Jaurlaritzaren jarrera LOMCE erreformarekiko?

Gobernura iritsi bezain pronto, LOMCE delako erreformaren aurreproiektua izan dugu aztergai. Lege-proiektuak hainbat akats dituela eta gure eskubideak sakon urratzen dituela argi eta garbi esan diogu Wert ministroari. Gure hezkuntza eskubideen eta euskararen estatusaren kontra egiten du zuzenez. Azken 30 urteetan argi geratu da Gernikako Estatutuak Euskadiri ematen dizkion konpetentziek onura izugarria ekarri dutela, batez ere hezkuntzan, baita euskarak bizi izan duen berpizte prozesuan ere. Ikasgai gehienak kanpotik inposatzeak, edukiak eta horien ebaluazioak haiek kontrolatuz, eta euskarak erdararekiko estatusa galtzeko arriskua izateak asko kezkatzen gaitu, eta beraz, ezin dugu onartu.

Espainiako Gobernuak erkidego guztiak homogeneo bihurtzeko helburua du orain, horrek onurak ekarriko dituelakoan. Baina oker dabil, LOMCEk bilatzen dituen helburu gehienak aspalditik gaintitu ditugu. Europako herrialde aurreratuenekin egin dezakegu kasu askotan konparazioa. Beraz, Estatu guztiko erkidegoekin homogeneo bihurtzeak ez luke inongo zentzurik izango gure kasuan.

Neurririk hartuko al duzue?

Erreforma ez zaigula batere gustatzen argi utzi ondoren, egoera aztertu beharrean aurkitzen gara. Kontuan izan behar dugu momentuz LOMCE erreforma aurreproiektua baino ez dela. Hitz egiteko eta ikuspuntuak hurbiltzeko momentua da eta ahalegin horretan aritu gara orain arte, nahiz eta



batzuek gure jarrera kritikatu. Hurrengo eszenatokia Madrilgo parlamentua dugu. Eta bertan ere, nahitaez, LOMCEren edukiaren inguruan eztabaidatu beharko dugu, gustatzen ez zaiguna salatuz eta gure argudioen alde eginez. Arduragabekeria litzateke mahaitik jaiki eta Madrilgo Gobernuak bere gehiengo absolutuarekin egiten duenaren zain geratzea. Gure interesak defendatzen jarraitu beharrean gaude, eta horretarako, hitza erabili behar dugu. Askok galdetzen digute, ahalegin horien guztien ondoren gure helburua lortzen ez badugu, zer? Orduan bai, beste jokabide batzuk hartu beharko ditugu. Esan bezala, gure interesak defendatzeko momentu bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartuko ditugu.

Erreforma aurrera aterako balitz, zer ekarriko lioke EAEko hezkuntza sistemari?

Atzerapauso izugarria. Hezkuntzak azken urteotan lortutako arrakasta ezerezean geratuko litzateke. Estatuko beste erkidego batzuekin parekatzeko ahaleginean, orain ondo gaudenok eta oso behean daudenak berdinduko gineteke. Hots, batzuentzat oso ona dena, guretzat onartezina da. Eta ez bakarrik ikastetxe eta ikastolei begira. Lanbide Heziketan ere puntako emaitzak ditugu, gure ikasleak Estatu osoko prestatuenak dira eta irakasleak ere maila berekoak ditugu. Eta hau ez dugu guk bakarrik esaten, beste autonomia erkidego batzuetako arduradunen hitzak dira. Gaur egun, Euskadin, Lanbide Heziketara jauzi egin nahi duten gazteek gutxienezko ikasketa maila izan behar dute. Exijentzia horren kontra ere egiten du LOMCEk. Gure inguruko enpresetako arduradunek izugarri baloratzen dute gure gazteen prestakuntza maila. Lanbide Heziketari kalte egiten uzteak, gure ikasleei, ekonomiari, enpresei min egitea ekarriko luke. Onartezina. ■



“Ahalegin guztien ondoren gure helburua lortzen ez badugu, zer? Orduan bai, beste jokabide batzuk hartu beharko ditugu”

«Lehen musika norberaren baitan, batez ere ahotsean, zegoen»

Iruñeko Orfeoia Gaztelu Plazatik Europa eta AEBetara katapultatu duen zuzendaria.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Nondik datorkizu musika zaletasuna?

Txikitan jada musika asko maite nuen baina nire buruan ez zen sartzen musika ene ogibi-dea izatea. Zaletasuna aittuna Urbanorengandik jaso nuen. Berak Etxarriko musika banda eratu zuen, beste lagun batzuekin batera, 1925ean, eta Etxarriko koroan ere baxua zen, kantaria. Iparragirrearen kantuak abesten zizkidan. Lanbidez zurgina zen eta, jubilatutakoa, harekin eta amiñarekin ordu asko pasatzen nuen etxe berean bizi ginelako, haiek bigarren solairuan eta gu lehenean. Haiekin *Haurtxo polita* ikasi nuen, nire lehen abestia. Nire oroimena hori da: hizketan eta abesten batera hasi nintzela. Gero musika klaseak hartzen hasi nintzen 6 urterekin, Patxiku Urrestarazu aittunaren lagun batekin, eta gero solfeoa eta txistua. 10 urterekin Altsasura joaten nintzen pianoa eta solfeoa ikastera. 15 urterekin Etxarriko abesbatza hasi nintzen kantari eta 16rekin hona etorri nintzen ikastera.

Eta zer dela eta ikasi zenuen Zuzenbidea?

Musika betidanik izan da oso garrantzitsua niretzat, baina sekula ere ez nuen pentsatu profesionalki honetan aritzea eta horregatik unibertsitatean joan nintzen. Historia eta Geografiaren eta Zuzenbidearen artean zalantza ibili eta azkenean bigarrena hautatu nuen. Deustun onartu ninduten Finantza Zuzenbidea egiteko, orduan modan zegoena. Baina ni hemen pianoa eta harmonia ikasten ari nintzenez, erabaki nuen hemengo Opuseko unibertsitatean ikastea. Zuzenbidean nengibilarik, Etxarriko abesbatzako zuzendariak utzi zuen eta niri esan zidaten postu hori hartzeko beste bat etorri artio. Eta gaur egun arte. Egia da Zuzenbidearen hirugarren edo laugarren urtean esan nuela “hau ez da niretzako modukoa, baina bukatuko dut”; gurasoak hor ari ziren ordaintzen eta nik hasitako

guztia bukatzen saiatu naiz beti. 20 urterekin konturatu nintzen musikatik bizi nahi nuela. Ikastaroak eta ikastaroak egiten hasi nintzen eta bitartean musika klaseak ematen Etxarriko Musika Eskolan. Kantu eta Solfeo irakasle tituluak lortu nituen baina ikusten nuen zuzendaritza formakuntza zehatzagoa behar nuela. Horregatik 2001ean Koru Zuzendaritza ikasketak egitera joan nintzen Donostiara, Musikenera, 2006ra arte.

Goi mailako zuzendari izateko formakuntza nola lortzen da?

Musikenekoaz gain, ikastaro pila egin ditut Madrilan, Cartagenan, Hungarian, Alemanian... Irakasle asko izan ditut. Munduko onenetakoak hainbatetan, baina ikastaro laburrak izan dira, gehienbat. Ez da berdina kontserbatorioan eskaintzen den formakuntza, horregatik bost urtez Musikenen ikasi ahal izatea izugarria izan zen. Orain jarraitzen dut joaten batez ere Orkestra Zuzendaritza ikastaroetara. Apustu zaila da, batez ere zuzendaritzatik bizi nahi baduzu. Euskal Herrian eta Estatu osoan oso jende gutxi bizi gara honetatik. Ez dakit 25 bat lagun izanen garen osotara.

NORTASUN AGIRIA

Igor Ijorra, Etxarri Aranatzeko sortua, 1973ko garagarriaren 27an “gure herrian esaten den bezala”. Koru zuzendari profesionala –Espainiako Estatu osoan 25 bat baino ez daude–. Horretaz gain, kantaria, musika irakaslea, hitzaldi emailea eta Nafarroako Abesbatzen Elkartearen zuzendaritza ikastaroetako ohiko irakaslea. Zuzenbidean lizentziaduna eta lizentziarik ez duen irrati bateko kolaboratzaile fina: Iruñerriko Euskalerrira Irratian musika klasikoari buruzko dibulgazio saioa egiten du. Eta gauza guztien gainetik, bi haurren aitatzatxoa.



IGOR IJURRA

2005ean Iruñeko Orfeoira iritsi zinen, aldaketa handia?

Bai, noski. Iruñeko Orfeoia eta Iruñeko Ganbera Abesbatzari instituzio koru deitzen diet. Ez dira soilik abesbatzak, instituzio kulturalak baizik. Hemendik bi urtera 150 urte beteko ditugu eta Ganbera Abesbatzak ia 60 ditu. Honek ez du esan nahi besteak baino hobeak edo txarragoak direnik, desberdinak baizik. Beste dimentsio bat da. Aldizkarietan, telebistan, badugu tartetxo bat eta, tamalez, beste abesbatzek hori ez dute. Gure jarduerak ikusmina dira. Etxarrin ohituta nengoen koru ertain batera, 50-55 lagunekoa, eta hau 100 laguneko abesbatza da. Musikalki eta pertsonalki eramateko zailagoa da. Errepertorioa ere oso desberdina da. Aipagarria da koru ez profesionala garelara, amateurra, eta Orkestra Profesionalen Sarean sartuta gaudela. Horrek esan nahi du kantarien ogibidea ez dela musika, baina zuzendari batek zuzentzen gaituen momentuan ez dela oroitzen hau argiketaria denik, bestea etxeoandrea edo abokatua. Kalitate profesionala eskatzen digu eta gauza polita bezain zaila da hori dena uztartzen saiatzea.

Zuzendari handiekin orpoz orpo lanean, zer ikasi duzu?

10-15

“Kirolean bezala 25 urterekin abesten hastea berandu ibiltzea da. 10 edo 15 urterekin hasi behar da eta ozenki abestu behar da, lau garrasi bota, kalean jolastu...”.

Zuzendari handi horiek gehienetan psikologo onak direla. Musikaz jakitea bezain garrantzitsua da hori. Eta ikasi dut, bestalde, zuzendari gorenak direnak oso pertsona umilak ere badirela, errespetu handikoak.

Zer falta zaizu ikasteko musika munduan?

Gehiena. Zenbat eta gehiago jakin, are eta gehiago ohartzen zara zeinen gutxi dakizun. Nik musikan errepertorio gehiena ezin dut egin. Zatitxo bat besterik ez. Zuzendari bezala orain beharko nuke *a capella* piezak egiteko denbora gehiago. Eta berdin gertatzen zait musika barroko edo Berpizkundekoarekin. Hain da zabala errepertorioa! Milioika obra koral daude. Musikariak beti ikasten egon behar du, hil arte. Fonetikaren aldetik, adibidez, hizkuntza desberdinetan ahoskatzen ikasi behar duzu. Guk alemanez, euskaraz, gaztelaniaz, errusieraz, latinez... kantatzen dugu. Latinak, adibidez, ahoskera desberdinak dauka: italiar, frantziar, espainiar, aleman erara... New Yorken eskaini genuen *Carmina Burana* alemaniar erara egin genuen. Orain frantsesa ikasten ari naiz. Eta gauza gehiago beharko nuke: harmonia eta kontrapuntua berriz ikasi, eta kantua ere bai. Badaramazkit zazpi urte ikasi gabe eta beharko nuke hamabost egunero edo, irakasle batengana joan eta ahotsa ongi

EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Balmien zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02/koa)

TOLESTU

ZELAPARRA
HEMEN IKU

landu beti fin eta prest izateko. Gorputz ariketa bezalakoa da hori.

Zer nahiko zenuke egin Orfeoian?

Musika garaikide gehiago. Bai orkestrarekin, bai *a capella* erara ere, baina horretarako denbora gehiago beharko genuke. Bestalde, guri beti eskatzen digute betiko errepertorioa. Estandarra. Beti ari gara bueltaka egile eta lan berdinen inguruan: Beethoven, Mozart, Brahms... Askok gustatzen zaizkit egile hauek, baina interesgarria izanen zen, era berean, lan-zen ez den errepertorioa hartzea. Eta Euskal Herriko eta Nafarroako konpositoreen obrak interpretatzea. Horretan ari naiz. Azken urteotan, adibidez, Lorenzo Ondarraren obra dezente mustu ditugu eta aurten ere José Antonio Huarte, Orfeoiko zuzendaria izandakoa omenduko du Nafarroako Abesbatzen Elkarteak eta hori dela-eta kontzertua eskainiko dugu Katedraleko errefektorioan maiatzaren 18an. Hainbat konpositore nafarren abestiak izanen dira eta Huarteren bi obra, gutxienez, mustuko ditugu. Horretaz gain gustatuko litzaidake konpositoreekin hitz egin eta obra berriak eskatzea, baina horretarako denbora eta diru gutxi dugu. Orkestrek ere ez dute errepertorioa berritu nahi. Hor sumatzen dut zuzendari eta kudeatzaileek egun daukaten publikoa mantendu nahi dutela, eta publiko hori, gehienbat, oso kontserbadorea da.

Murrizketek eragin handia izan dute Orfeoian?

Beste batzuekin alderatuz, ezin kexa gaitezke, baina hala ere, Estatuko laguntzak, guretzako diru sarreraren %20 zena, desagertu egin dira. Gainerakoa, Nafarroako Gobernutik jasotzen dugun %60 eta Iruñetik hartzen dugun %20 mantentzen da, oraingoz, eta hau da garrantzitsua. Partiturak, diskoak edo materiala erosteko erabat murriztua dugu aurrekontua, beraz obra berriak enkargatzea, momentuz, pentsaezina da.

Musika kontuetan aitzindaria izan da Nafarroa urte luzeetan.

Bai, 1960ko hamarkadan Iruñeko Kontserbatorioa bide erakuslea izan zen, edota Orfeoia bera ere bai. Hau izan zen, adibide moduan, emakumeak onartu zituen bigarren korua Estatuan. Baina orain lan handia egin behar da, batez ere gazteak erakartzeko. Gazte batek musika klasikora jotzea ez da gauza arruntena. Errazagoa da musika hori dastatzea 30 edo 40 urte duzunean. Gainera gaur egun pop eta kontsumorako musikaren bonbardaketa ikaragarria dugu. Kontua ez da klasiko eta moderno lehian jartzea. Ni oso *rockeroa* naiz eta heavya asko gustatzen zait. Onena litzateke gazteei eskaintza zabalagoa ematea. Gure alde-



Elkarrizketa Iruñeko Orfeoia-aren egoitzan egin dugu, Iruñeko Gazteluko Plazan. Ijurrak azaldu digunez, torilen etxea omen zen eraikin hau: "Hemendik askatzen zituzten gero plazan toreatuko zituzten zezenak. Solairu honen azpian Café Vienés zegoen, Hemingwayk, besteak beste, ederki ezagutzen zuena. A zer alea, Hemingway hori! Esaten dutenez ez omen zuen inoiz ezer ordaintzen".

Ametsa

"Munduko orkestra zuzendari onenetako batzuekin aritzeko aukera izan dugu azken urteotan. Buruz buru haiekin egon. Hitz egin. Nola zuzentzen duten ikusi, ikasi, entzun... Psikologikoki nola egiten duten lan, nola kudeatzen duten hori guztia. Oso esperientzia polita da. Rafael Frühbeck de Burgos, New York Philharmonic edo Valery Gergiev handiekin aritu gara lanean. Horiek guztiak diskoetan dauzkate, eta haiekin lan egiteko aukera izan dut!".

tik egin behar duguna da errepertorioak berritu. Haurrengan eta gazteengan gehiago pentsatu eta haietzako gauzak egin. Hor erronka handia dugu. Argi dago zuzendariak abesbatzetako eta orkestretako motorrak garela. Tamalez zuzendari batzuk oso lasai bizi dira eta bultzada handiagoa beharko luketela ikusten da. Zuzendaria izatea zaila da eta askotan musu-truk egiten den lana da, baina afera musikarion eskutan dago.

Garai batean asko kantatzen zen, orain zergatik ez?

Hor min handia egin digu diskoak, batez ere 60ko hamarkadatik hona. Lehen musika norberaren baitan, batez ere ahotsean, zegoen. Elizan kantatzen zen eta musika giro handia zegoen: XIX. mendean sortutako banda militar asko zegoen, adibidez, hemen Iruñean, gero txaranga eta orkestren jatorria izan zirenak. Oro har, Euskal Herrian asko kantatu izan da kalean, Eguberritan, Santa Agedan edo San Juan bezperan. Etxean ere ohitura zegoen, bertsolaritza bizi-bizi egon da, jotak beste toki batzuetan... Ahozko tradizio sendoa izan dugu mendeetan. Baina diskoa iritsi zenean ikusi genuen guk gerorrek musika egin beharrean, aski dela botoitxo bat sakatzea musika izateko. Horretaz gain estilo haustura ekarri zuen biniloak: doinu berri eta politak, rock and rolla eta abar. Bestalde, euskara galdu den herrietan galdu da kultura, aitona-amonengandik ilobetara datorren transmisioaren soka hori eten delako. Erronkari, Jaurrieta, Abaurregainean... zenbat melodia jaso diren, orain bertako jendeak ezagutzen ez dituenak! Erre-

pertorioa, beraz, galdu egin da. Hemen harrobiak elizak izan dira. Orain elizak hutsik daude eta parrokietako koruetan ere gero eta jende gutxiago. Musika eskolatan badira abesbatzak edo eskolaniak, baina askotan dira “mariak”, baliorik gabeko ikasgaiak. Instrumentuei garrantzi handiagoa eman zaie azken 20 urteotan. Solfeoan ere irakurketa musikala asko egiten da baina abestu gutxi. Haurrak edo gazteak garenean ez badugu abesten, ohitura hori ez dugu lortuko. Lehen haurrak etxean zaletzen ziren, gero elizan, koadrilan, kalean... abesten zuten. Eta noski, ahotsa lantzen ez bada, tresna hori ez da menperatzen. Nik askotan esaten diet abeslariari: “Nola nabari den zuek ez zaretela kalean jolasean ibili herrietan egiten den bezala. Ez dakizue garrasi egiten”.

Eta belarri ona izatea ere beharrezkoa da kantatzeko, ezta?

Belarria ere lantzen da. Nik eza gutzen ditut belarri kaskarrarekin abesbatzan hasi zirenak eta orain oso ondo abesten dutenak. Badira kasuak eta kasuak, abeslariaren artean bada denetarik.

Gaur egun jendaurrean aritzeko eta komunikazio lanetan, ahotsa ongi lantzeari garrantzia ematen zaio.

Baina hori ez da berria. Grekoek eta erromatarrek erretorika bikain lantzen zuten. Aurrean duguna konbentzitzeko dugun teknika multzoa da erretorika eta horren barruan ahotsaren erabilera dago. Oso mundu aberatsa da. Ahots baten kolorea eta musika oso garrantzitsuak dira. Badira hizlariak, esatariak, irakasleak, politikariak ahotsa ongi jorratzen dutenak. Azken urteotan grabaego hitz egiteko joera dago, ozenago baina grabaego.

Eta guk zergatik hitz egiten dugu horren ozenki?

Ez dut ikerketa seriorik eginik horren inguruan, baina nik uste dut hori gure sistema bokalikoarekin lotua dagoela. Gaztekeran, euskaran, italieran bost bokal daude eta irekiak gainera. Joan toki hauetara eta neurtu dezibelioak. Hizkuntzaz gain, faktore kulturalak, klimatikoak eta bestelakoak ere badira, noski. Guk, euskaldunok, -tz -ts eta halako



AZKEN HITZA

Krisia

“Duela ez urte asko arte, udal askok organista ordaintzen zuten. Zenbat idazkari organo jotzaile izan dira? Edo apaiz berria behar zenean herrian, musika zekien bat bidaltzea eskatzen zuten organoa jotzeko, korua zuzentzeko edota klaseak emateko. Gaur egun musika eskolak daude, baina laguntza gehiago behar dute. Baina zer espero dezakegu? Diru asko egon denean ez da egin, beraz orain krisiarekin gutxiago! Nik dena den zuzendariak animatu nahi ditut: lana egin eta kementsuak izan daitezen, gu baikara koru baten %75a”.

beste soinuak ditugu, aurrean egiten direnak, eta honek laguntzen digu soinua aurrera eramaten eta ozenago hitz egiten.

Carmina Burana kantatarekin muga guztiak hautsi dituzue.

Carmina Burana proiektu honekin 2009an hasi ginen. Bost urteko egitasmoa da eta hiru partaide gaude: Fura dels baus, Kataluniako produktore batzuk eta Orfeoia. Produktzio honetan diru inbertsioa egin genuen. Donostian hasi eta lehen bi urteetan emanaldi askotxo egin genuen. Orain moteldu egin da krisia dela eta. Honek izena eman digu, mundu osoan ezagutarazi gaitu. Eta, era berean, bidea ireki zigun 2009an Gergiekin lan egiteko eta 2010ean, bi aldiz, Estatu Batuetara joateko, Washington eta New Yorkera. Orfeoian sartu nintzenean planteatu nuen lehenbiziko bi urteetan korua sendotzea, jende gehiago sartzea eta manciatzen ikastea, gero Estatu mailako hemengo sarean postu bat hartzea zen helburua eta, modu naturalean, Frantzia sartzen hastea. Baina proiektu honekin gure pausoak jauzi bihurtu dira. Frantziara baino lehenago Estatu Batuetara joan gara. Dena den, nahiz eta Carnegie Hallen kantatu, ez dugu ahaztu behar nortzuk garen: koru amateur bat goraldi eta beherakadekin.

Eta une honetan zer duzue egutegian?

Abeslariz duela bi urte baino okerrago gabiltza orain. Krisia dela-eta batzuek utzi egin behar izan dute. Uste dut gazte abesbatzatik zortzi-hamar lagun igoko direla urte bukaerarako eta hor berriro gora joanen gara pixka batean. Momentu larrian gaude guztiok, baina momentu politean. Aurten Filarmonia Orkestrarekin arituko gara Madrilan, Esa-Pekka Salonen zuzendari finlandiarrarekin ere lan egingen dugu, Bordeleira joanen gara irailean, Oviedora *Carminarekin*... Eta hemendik bi urtera gure 150. urteurrena. Horretarako proiektu politikak ditugu, baina burua galdu gabe, lurra ukituz eta jakinda ez gara munduko korurik onena. ■



Bizkaiko zaborren formula

Bizkaiak azpiegitura berri bat dauka orain lurraldeko zaborrak tratatzeko: Arraiz mendian eraikitako TMB (Tratamendu Mekaniko-Biologikoa) delakoa. Inaugurazio ekitaldian Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak Gipuzkoari eztenkada bota zion. Benetan al da inbidia emateko modukoa Arraizkoa?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BERRIAN Maite Asensio Lozano bildu duenez, “Azpiegiturak teknologia ‘modernoa’ erabiliko duela nabarmendu du ahaldun nagusiak. Hala, ‘inbidia emateko moduko’ instalazioa dela gaineratu du, Gipuzkoako bizilagunei begiratuta: ‘Beste batzuek gurako lukete guk arlo honetan lortu dugun maila lortzea. Hemenetik ez oso urrun, oraindik ez dakite zer egin biltzen duten zaborrarekin”.

Hain “inbidia emateko modukoa” ote da Bizkaiko hondakinen kudeaketa? Titulu eta foto deigarrien azpiko letra txikia leitu beharra dago hobeto jakiteko. TMB berria zertara datorren, alegia. Gipuzkoarako ere bai baitago TMB bat aurreikusia. Arraizen Bizkaiko Foru Aldundiak eraiki duen TMB berria loturik dago Zabalgarbi errauste plantaren beharrek. *Berrian* eta *Deian* ez dira zifrak berdin eskaintzen, baina bien kroniketan ere nabarmen ageri da TMB honek bertara eramandako zaborretatik gutxiena birziklatuko duela eta gehiena errausteko prestatu.

Hondakinez zerbait irakurri duenak badaki etxeetatik zaborrak ondo bereizita ez biltzekotan, *Ecoparque* formula dela errauste plantei janari hobea emateko modua, hala dira Katalunian eta hala izanen dira Baionan bezala Bilbon. Funtsean, etxeetako hondakinen %40 baino gehiago den organikoa (txarri-jana) lehertzeko. Organiko bustiak berotze ahalmena kentzen dio zaborrari: paperak ondo erretzen dira, plastikoez bero handia ematen duete, zapi eta oihalek ere bai, baina organikoa heze da. Tratatu dezagun zaborra organikoa lehertzeko, bide batez ahal den gasa kenduz, eta zaborrari berotze ahalmena handitu diogu.



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Iñaki Azkuna eta Jose Luis Bilbao TMBren inaugurazioan.

Baina diru kontuei ondo erreparatu. Formula honek baditu irabazle gutxi batzuk eta gehiengo zabala osatzen duten petzeroak. Nork pagatu du TMB berria? Bizkaitarrek beren zergekin pagatu dituzte hor gastatu diren 43 milioi euroak. Zertarako? Zabalgarbi konpainia pribatuak kiskali behar dituen hondakinak erretzeko hobeto prestatu eskuratu ditzan. Beraz, Bizkaiko herri-tarrak kaleko kontainerrean (ez Hernanikoak bezalako poste itsusi horietan, Jainkoarren!) lagatako bere zabor nahasia pagatu du behin eta berriro: biltzeetatik pagatzen dio multinazional handi bati, lehortuz tratatzeko TMBa eraikitzeke pagatu du, Zabalgarbi konpainia pribatuak kudeatzen duen azpiegiturak eraikitzea pagatu zuen, zaborrak Zabalgarbin kiskaltzea pagatzen du, Zabalgarbik kiskalitako tona bakoitzaren 1/3 diren eskoria eta errautsak nonbait uztea pagatzen du ostera... Ez aipatzearren erreketak sortutako kutsaduraren ondorioak, horiek kalkuluetatik kanpo geratzen dira beti. Bizkaiko hondakinen benetako kostea zehaztu beharko luke auditoria on batek... baldin eta egia bada diru publikoak urri direla eta behar sozialak izugarri handi.

Bizkaiko hondakinen formulak, hala ere, badauka are arazo larriagoa, ondoko lurraldeekin alderatzen hasita. Okerrena egiten dutela ere, Gipuzkoak eta Nafarroak oraindik erabakitzeke ahalmena daukate. Bizkaia urte luzetarako dago Zabalgarbiko inbertsioei kateaturik. Bihotza errauste planta duen kudeaketa eredu hori dela medio, bizkaitarrentzako gehiago birziklatzea arazoa da? ■



«Analfabetoa da irakiar emakumeen %40»

Irakeko giza eskubideen aktibistak ezagunenetakoa da Edwar. 1992an Al-Amal erakundea eratzen lagundu zuen, Golkoko Lehen Gerrak utzitako ondorio latzei aurre egiteko asmoz. Hasierako urteetan Irakeko Kurdistanetik aritu ziren lanean, eta 2003an Bagdadeko bulegoa ireki zuten. Bertatik, Irakiar Emakumeen Sarea ere kudeatzen du Edwarrek, giza eskubideen aldeko beste hamaika proiekturen artean.

| KARLOS ZURUTUZA |

Zein lan bideratzen duzue bulego honetatik?

Al-Amal erakundearen bidez Irakiar Emakumeen Sarea sortu genuen 2006an. Hemengo emakumeen eta nazioarteko erakundeen arteko lotura indartzea da helburua, baita ikastaro nahiz bestelako ekintzen bidez emakumeon formazioa sendotzea ere. Gure lorpenik handienetakoa zera izan da, parlamentuko %25eko emakume kuota gauzatzeko. Arabiar Udaberrien testuinguruan kanpaina berri bati ekin diogu orain, norbanakoen askatasunak babesteko.

Zeintzuk dira emakume irakiarren arazorik handienak?

Populazioaren %55 baino gehiago emakumezkoa izan arren, gizonezkoek marraztutako gizartean bizi gara. Ez dago emakumerik alderdi politikoen lidergoan, ezta gobernuko postu gorenetan ere. Edonola, emakumeon marjinazioaren atzean arazo kulturalak daude, politikoen gainetik. Alargunena dugu gai mingarrienetako bat. Milioi eta erdi baino gehiago daude Iraken. Kopurua biziki igo zen 2003ko inbasioaren ostean. Prekarietate gorrian bizi dira gehienak, 100 dolarreko pentsioarekin. Gizartean integratzea izan beharko luke lehentasun, baina momentuz, berriro ezkontzera baino ez ditugu bultzatzen, poligamia baimentzen duen herrialde honetan. Bestalde, unibertsitate ikasketak dituzten emakumeek lan munduaren atek itxita aurkitzen dituzte. Horrela, ia ezinezkoa da aita edota senarrarenganako dependentzia haustea.

“Behin behineko’ ezkontzak daude, prostituzioaren gertuko praktika. Irandik inportaturiko fenomeno da”

Baina Ekialde Hurbilean ez al zen Irak aitzindari izan emakumeen askatasunen esparruan?

1970eko hamarkadan UNESCOk erabateko alfabetizazioa aitortu zion Iraki. Egun, ordea, analfabetoa da irakiar emakumeen %40. 1959an Ekialde Hurbileko lehen emakume ministroa eta lehen emakume epailea izan zituen herrialdeak. Orduko gure lorpenik handienetakoa estatus pertsonalaren legea onartzeko izan zen, ezkontzak legalki erregistratzera behartzen zuena. 2013an ordea, ilegalak dira ezkontza kopuru handi bat. Emakumeak oso egoera ahulean gelditzen dira eta euren seme-alabek ere pairatzen dituzte horren ondorioak.

Areago, 10-12 urteko neskek ezkontzen dituzte 30-40 urteko gizonekin. Aldi berean, “behin behineko” ezkontzak daude, prostituzioaren gertuko praktika. Irandik inportaturiko fenomeno da. Eta ezin ahaztu gero eta ohikoa goak diren familia barruko biolentzia kasuak. Gobernuak, baina,

begiak ixten ditu, askotan ortodoxia erlijiosoaren agindupean. Hijab –belo islamiarra– janzten ez duten emakumeak diskriminatzen dira, baina are tamalgarriagoa da neskatoak eskolatik ateratzea edo emakumeak lan mundutik.

Ez al da eraginkorra aipatu diguzun parlamentu kuota?

Kuota horri esker 84 emakume daude parlamentuan, baina gehienek kideetasun pertsonalei esker lortu dute eserlekua, ez egindako lanagatik. Zailtasunak zailtasun, oraindik bada emakume kopuru handi bat lanari arduraz ekiteko gai dena, baina tamalez, bigarren plano batean gelditzen dira.

Gogoetarako gunea sarean

Multimedia kanalaren azpiatal gisa, Solasaldiak gunea ireki du ARGIAk webgunean. Bertan hitzaldiak, mahai-inguruak eta eztabaidak aurkituko ditu erabiltzaileak. Gai zehatzen inguruan gogoetarako euskarazko materiala biltzea da asmoa. Dagoeneko 100 jarri ditugu eskura.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

GERO ETA ikus entzunezko material gehiago dago sarean sakabanatuta, eta horregatik, biltegi baten falta ikusita, bilaketa eta hautaketa lana egitea erabaki dugu, gogoetarako ikus-

entzunezko materiala eskuragarri jarri asmoz. Gai zehatzei buruzko monografikoak jasoko ditugu, denak euskaraz ala euskarazko azpizidatziekin. Dagoeneko, kanal horretan 100 bat bideo daude ikusgai, besteak beste, *Euskararen kontrako diskurtsoa neutralizatzea*, *Emakumea eta kartzela*, *Norvegiako Atzerri ministroa elkarreketaren defentsan*, *EAJ vs. EH Bildu*, *Eskolak sormena hiltzen du*, *Nafarroa post-UPN*. *Noiz, nola, norekin?*, *Bikoizketa vs. Azpizituluak* edo *Bilboko Aste Nagusiaren historia*z batzuk aipatzearen eta gaiak zein anitzan diren ikus dezazuen.

Erabiltzaileak solasaldien kanalean aurkituko duen material asko orain arte ARGIAko multimedia kanalean zegoen, Ekitaldiak azpiatallean. Hemen, kontzertuak, poesia errezitaldiak eta bestelako ekitaldiak ere biltzen ditugu, eta gogoetarako materiala beste askoren artean nahastuta geratzen zen orain arte. Hori dela-eta, erabiltzaileak kanal batera edo bestera jotzeko helburuak ezberdinak izan daitezkeela ulertuta, bereizketa egitea erabaki dugu.

Gainera, material berria ere bada solasaldien kanalean, elkarlanean aritzea adostu baitugu *Kontra* eztabaida saioarekin. Euskaraz egiten dituzten debateak biltzen joango gara, beste bide batzuetatik bildutakoarekin batera.

Kontra orain urtebete sortu zen, “egungo komunikabideetan eta hezkuntzan dagoen hutsunea betetzeko beharri erantzuna emateko”. Euskal gizartean pil-pilean dauden gaiakin hilero eztabaidak antolatu eta Internet bidez emititzen dituzte. Zai Zoi Bele ekoiztetxe independenteak ekoizten du eta azken urteotan publikoki eztabaidatu ez duten alderdien ordezkariek aurrez aurre jartzea lortu dutelako nabarmendu da, besteak beste. Nerea Alias aritzen da moderatzaile lanetan.

Duela bi urtetik Koldo Mitxelena Kulturuneak antolatzen dituen euskarazko hitzaldiak ere sareratzen ditu ARGIAk. Baita nazioarteko



Azpiegutura handiei buruz *Kontrak* egindako eztabaida saioa, Solasaldiak kanalean ikusgai: www.argaia.com/multimedia/solasaldiak

«Euskaldunoi bete-betean eragiten diguten gaiei heltzen diegu Kontra saioan»

GAURKOTASUNEN GAIEKIN eztabaidak antolatu eta sarean jartzen dituen saioa da *Kontra* (www.kontraprograma.com). Solasaldien kanalerako elkarlana abiatu dugula-eta, elkarriketa egin diegu Nerea Alias eztabaiden moderatzaile eta Ane Fernandez produktzio arduradunari.

Zergatik sortu zenuten *Kontra*?

Zai Zoi Bele ekoiztetxe independenteak sortu zuen 2011n. Euskal Herriko komunikabideetan eztabaidarako gune kritikiko baten hutsunea zegoela ikusi genuen, eta hori betetzeko asmoz ekin genion.

Nola definituko zenukete saioa?

Euskal gizartearen intereseko gaiei hausnarketarako bidea ematen dien eztabaida saioa da. Gai politiko, ekonomiko, historiko eta sozialak jorratzen dira batik bat. Gai konkretuei zukua ateratzea da helburua, alde batetik zein bestetik, ikuspuntu guztiak ordezkatuz eta ahots guztiei leku emanez. Autoformazioarako gune gisa ere ikusten dugu.

Partaideen aniztasuna nabarmentzekoa da.

Gonbidatuak dira tratatzen ditugun gaien bizkarrezurra. Nestor Basterretxeak behin aipatu zuen euskaldunok azpizatituta bizitzeko gaitasun berezia dugula. “Zati” horiek mahai beraren inguruan eztabaidan jartzea da bilatzen duguna. Euskal Herria anitza da, eta beraz, mahai hori osatzeko lau hankak ahalik eta ezberdinenak izaten saiatzen gara, iritzi guztiak ordezkatuak izan daitezen.

Zer iruditzen zaizue euskarri gisa Internet?

Uste dugu informazioa gero eta gehiago Internet bidezko formatuetara bideratu behar dugula. Momentu honetan hainbat euskarrirentzako tokia dago, baina kontsumo ohiturak abiadura handian aldatzen ari dira, eta tren horretan ezin gara atzean geratu. Nahi gisa kontsumitzeko formatua da gurea. Gainera ikus-entzuleekin harreman zuzena izateko aukera ematen digu, bozkaketa, iruzkin eta proposamenen bitartez.

Hedabide batzuekin elkarlana hasi duzue, hala nola HamaikaTB, Info7

eta orain ARGIArekin. Zer bilatzen duzue elkarlan hauekin?

Gure sareak zabaldu eta euskal gizartearen ahalik eta esparru handienera iristea. Jende askoren interesekoa izan daitekeela uste dugu.

Zer asmo duzue aurrera begira?

Batetik, datozen hilabeteetan webgunea berrituko dugu, erabiltzailearentzat erabilerrazagoa egiteko. Bestetik, euskaldunoi bete-betean eragiten diguten gaiei heltzen jarraituko dugu, eta programa etengabe hobetzen. Orain arte izan dugun harrera oso positiboa izan da, eta horrek erakusten digu badagoela eskaera.

Aurreraterik bai etorkizun hurbilean zer eztabaida egiteko asmoa duzuen?

Euskal preso eta iheslari buruzko saioa prestatzen ari gara, pertsonaia historikoei buruzkoak (hala nola, Sabino Arana eta Lopez de Aro familiari buruzkoak). Gure herrian dugun ehizarako ohitura ere mahaiari jartzeko asmoa dugu. Euskal Herriaren erabakitzeko esku-bidearen gaineko subjektu politikoa nor den ere eztabaidatu nahiko genuke.

adituekin hitzaldiak antolatzen dituen TED.com webguneko edukiak ere, sarean erabiltzaileek euskaratutakoak. Horrez guztiaz gain, sarean bestelako eragileek jarritako

hitzaldi eta mahai-inguruak bilatzen joango gara, euskal komunitatearentzat interesgarriak direla iruditzen bazaigu. ■



Ganbazo burruntzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



DANI BLANCO

Euskaldunon Egunkariaren itxiera 10 urte geroago

Garbiñe Biurrun Mancisidor



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

2003KO OTSAILAREN 20ean Espainiako Auzitegi Nazionalako epaitegi batek *Euskaldunon Egunkaria* ixteko kautelazko neurria hartu zuenean, herritar askok harridura eta sinesgogortasuna azaldu genituen. Hasiera batean, Epaitegiaren erabaki hark ezustean harrapatu ninduen eta horrela esan nuen: alde batetik, neurri haren aurrean nire errespetua adierazi nuen; bestalde, oso delitu larriekin lotuta egongo zela eta guztiz ezinbesteko neurria izango zela pentsatu nuen, nahiz eta jakin informazioa emateko eta jasotzeko oinarriko eskubidea murrizten ari zela; azkenik, euskara hutsez argitaratzen zen egunkari bakarra izanik, epaileak bereziki aztertuko zuelakoan nengoen.

Hori izan zen nire lehen-lehenbiziko erreakzioa. Horrekin batera, eta beti zuhur, espero nuen hartutako neurria horren larria izanik, berehala, oso egun gutxi barru, kenduko edo egokituko zela eta, *Egunkariaren* jarduera berriz ere martxan jartzeko beste ordezeko neurri proposagoak hartuko zirela, hedabide horren bitartez delitu larriak beteko ez zirela beti ere bermatuz.

Egunkaria auzia ez da bukatu: alde batetik, oraindik “sumario ekonomikoa” bizirik dago; zergatik mantentzen den eta zer-nolako martxa daraman argi ez badakigu ere. Bestalde, Egunkaria kasuaren ondorioz Estatuak ez ditu egindako kalte guztiak aitortu eta ordaindu

Argi dago ez zela horrelakorik gertatu. Egunak joan ziren, sumarioak bere martxa jarraitu zuen eta *Egunkariak* berea, hau da, Epaitegiak erabaki zuena: bere desagertpena. Eta hori, nahiz eta epaileak kautelazko itxiera hori altxatu zuen urtebete pasatxo beranduago, enpresa likidatu eta gero, *Egunkariaren* egoerak inolako erre-mediorik ez zeukanean.

Baina ez zen hor gelditu egindako bidegabekeria. *Egunkariako* zazpi kide prozesatu, salatu eta epaitu zituzten. Egia da azkenean errugabeak deklaratu zituztela, baina hori ere, beranduegi iritsi zen. Berandu, batez ere, eta emandako epaiak horrela dioenez, euren jarreretan ez zegoelako delitu aztarnarik ere eta hau hasiera hasieratik jakitea guztiz posible zelako.

Hau guztia larria izanik ere, ez da auzi honen inguruan gertatutako bakarra. *Egunkariaren* itxierarekin batera beste hainbat gehiegikeria gertatu zen. Operazio hartan atxilotutako batzuek tratu txar larriak salatu zituzten, eta halere, Estatuak ez zituen ikertu, epaitegiek ez zuten hori argitzeko inolako lanik egin; alde-rantziz, baten bat salatua izan zen segurtasun-indarrak kalumniateagatik. Martxelo Otamendiren kasuan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hau dena gaitzetsi eta Espainia zigortu du, Estatu honetan gertatu den hainbat bidegabekeria argituz.

Baina Egunkaria auzia ez da bukatu: alde batetik, oraindik “sumario ekonomikoa” bizirik dago; zergatik mantentzen den eta zer-nolako martxa daraman argi ez badakigu ere. Bestalde, Egunkaria kasuaren ondorioz Estatuak ez ditu egindako kalte guztiak aitortu eta ordaindu.

Azkenik, Egunkaria aferak izan dituen alde positiboak azpimarratu nahi nituzke: bata, gizartearen elkartasunaren adierazpen ugari eta anitzak, injustizia baten aurrean batasuna posible dela frogatuz. Bestea, terrorismo edo beste delitu motaren aurka lasterbiderik ez dagoela, ez duela merezi injustizia bat beste injustizia batez ezabatzea, pertsona guztion duintasuna babestu behar dela eta Auzitegiek independenteak izan behar dutela, Estatu-tuko beste botereekiko loturak baztertuz eta denon oinarriko eskubideak bermatuz. Egunkaria auzian, hain zuzen ere, gertatu ez zena. ■





LURPERRI

BARCINAK ERRANĀ < BI NĀFĀRROEN 3RTEAN
LOKĀRRI KULTURAL ETA HISTORIKOAK DAUZKAGU >
ERRAN EZ DUENĀ, USTELKERIĀK EZ DUELA MUGĀRIK
ETA NĀFĀRROĀ GUZTIRĀ HEDĀTZEN DUTELA, LURPEAN...



LASAGNĀ CONNECTION

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

Soziolinguistikak ez du marfilezko dorrerik

BI IRITZI ezberdin ditugu lerro hauen abiapuntu. Bata, duela dozena bat urte idatzitakoa; bestea, azken asteetan kaleratu berria dena.

XXI. mendearen hasieran Nekane Jausorok zioen euskal ikerkuntza soziolinguistikoko “lan gehienak mundu akademikotik kanpo eginak” zirela (Jausoro, 2000: *Bat Soziolinguistika* aldizkaria 37). Bestalde, Miren Loinaz eta Izaro Susperregik, Kale Neurketa-ren 2012ko emaitzen gaineko gogoeta eginez, horrela idatzi berri dute: “Hizkuntza berrikuntza izan daiteke hurrengo urteetako ildo”. (Loinaz eta Susperregi, 2012: *Bat Soziolinguistika* aldizkaria 84)

Asmo orokor horrezaz gain, beste proposamen interesgarri batzuk ere egin dituzte Urtxintxa elkarteko bi lagun horiek, hala nola gazteengan ematen diren hizkuntza-ohituren aldaketaren unekak identifikatzea, bide berriak arakatzea euskararen alderdi ez-formala eskuratzeko familiak utzitako lekua bete dezaten, edota norbanakoaren hizkuntza-portaerarako barne motibazioak aztertzea. Proposamen ezin interesgarriagoak. Baina nola ekin?

Elkarrekin lotura garbirik adierazten ez zuten hasierako bi ideiak, orain harremanetan jar daitezke. Izan ere, urteak joan urteak etorri, Jausororen baieztapenaren balioak bere horretan dirau; alegia, euska-

raren corpusa aintzat hartzen duten ikerketak ez bezala eta salbuespenak salbuespen, estatusaren gaineko ikerlan gehienak giro akademikotik at bultzatuak eta burutuak dira. Hori kezkarako motiboa bada.

Izan ere, nola ekin “hizkuntzaren berrikuntza”ri euskararen estatusaren ikerkuntza “omezurtz” bada-go mundu akademikoan? Egia da soziolinguistika aplikatuan ikertzen dela, bai, baina ez akademiak sortuta, baizik eta euskalgintza herritarrak zein instituzionalak eta aholkularitza enpresek bultzatua. Ahalegin horiek lekutan daude Euskal Herriko giro akademikoetatik, eta horrela zaila –ezinezkoa?– da berrikuntza sakon eta emankorra sortzea. Berrikuntza ahalbidetzeko ikerketa zientifiko petoaren eta aplikatuaren beharra dago; baita bien

arteko zubiak ere, bi-biek elkarri eta etenik gabe elika diezaioten.

Ez du, ez, euskararen soziolinguistikak, marfilezko dorrearen metaforaren arabera, bere baitan ixteko arriskurik. Hain dago urruti giro akademikoa soziolinguistikaren ikerlerroari ganoraz heltzetik!

Noizko, bada, politika zientifikoren bat euskal soziolinguistikarako? Nola antolatu eta nork bideratuko lan-ildo hori? ■

Nola ekin “hizkuntzaren berrikuntza”ri euskararen estatusaren ikerkuntza “omezurtz” badago mundu akademikoan?



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Gure zilborra

PERTSONA bere zilborrari begira gramatikatik hasten da.

Erakusten baitigute, eskolan, lehen pertsona ni naizela, bigarrena zu eta hirugarrena hura. Eta pluralean ere hurrenkera hori bera gertatzen da. Lehen pertsonak gu, gero zuek, eta azken-azkenean haiek, horra jasotzen dugun lehenengo gramatika. Nola ez gara egongo egozentrismoak jota? Nola ez gara biziko gure zilborrari begira? Ez dakit urrutiko hizkuntzetan nola izango den pertsona gramatikalen hurrenkera, baina sortu beharko balitz

bestelako jende bat, eta zabaltasun gehiago nahi bada, ez litzateke txarra ni horri lehen pertsonaren kategoria kentzea, zu horri bigarrenarena, eta gerokoei hirugarrenarena. Ez dakit ordena berezirik gabe uztea ba ote legokeen, baina utziko nituzke nik, eta beharko balitz hurrenkera bat nahi ala ez, ni hori azkenengo mailara eramango nuke, puska baterako behintzat, antidoto gisan. Pixka batean egon dadila, pertsona, bere zilborrari beharrean bere uzkiari begira. ■





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

- Amerikanuak
- Anuken egia
- Arrhash, pozoina
- Banlieues. Pariseko errebotak
- Basque hotel
- Bidaia Intimoak
- Botilen hilerria
- Companys eta Agirre azken erbesterantz
- Debekatuta dago oroitzea
- Egunero
- Elburua Gernika
- Euskal Herria: Ezkutuko zorra
- Euskararen jatorria: Enigma europar bat
- Garrasia Saharatik
- Gudari baten egunerokoa
- Haizea eta sustraiak
- Insumisioa. 20 urte desobeditzen
- Iparraldea XXI

- Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
- Iruña-Veleiako misterioa
- Itoitz hustu arte
- Itsasoren alaba
- Langile autonomia
- Leku hutsak, hitz beteak
- Nire bizi osoa espetxean
- Nömadak Tx
- Oroitarría
- Perurena
- Pluja seca - Euri lehorra
- Sagarren denbora
- Sahara marathon
- Salda badago
- Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
- The Yes Men fix the world
- Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*



Paxkal Indo

◆ SEASKAKO PRESIDENTEA



Eta orain zer?

ZER GERTATU DA HENDAIKO IKASTOLAREN EGOITZA BERRIAREN PROIEKTUAREKIN?

Hendaiako ikastolan 246 ikasle dira. Iparraldeko ikastolan handiena lehen mailetan. Baina horietarik 66 Pausuko (Behobia-Urruña) eskola zaharrera joaten dira, biziki baldintza txarretan. 2007tik egitekoa zen ikastola berriaren proiektua auzapezak Herriko Kontseiluari presentatu dionean abenduan, Baionako suprefetak abisua eman du. Zehazki aipatzeko, Hendaiako Herriko Etxea Iparraldeko lehenetarik izan ikastola laguntzen. Duela hogeitaz jada, Ikastolaren alde bozkatu zuen Herriko Etxeak eta ikastola berri bat eraiki zen. Ofizialki asialdi-gune bat eraiki zen eta administrazioak onartu zuen asialdi gune hori diru publikoarekin ordaintzea. Udaleku Elkarteak baliatzen badu ere, hendaiarrek badakite ongi Ikastola dela

zen lehen ikastola Baionan, 5 haurrekin. Gaur egun 3.000 goiti dira euskaraz ikasten ari, Ipar Euskal Herriko hiru eskualdeetan diren 30 ikastoletan. Eta hor dugu galdera: Iparraldean murgiltze eredia Seaskak bakarrik eramaten duelarik, ez ote du euskararen aldeko politika publikoa parte handiena bere bizkar eramaten? Ipar Euskal Herrian euskararen alde egiazko politika bat baldin bada, Seaskak eramaten duen lana ezinbestekoa dela aitortu beharko du administrazioak, behin betiko. Eta hala eginez, Iparraldeko ikastolak ez direla eskola pribatu “arruntak” aitortu beharko luke. Seaskako burrasoek ez dute eskola pribatuaren hautua egin, euskararen hautua egin dute. Beren haurrak Iparraldeko euskaldun kopuru ttipitzen ari den horietarik izan ditezten hautua egin dute. Beraz suprefetak igorri duelarik bere gutuna Hendaiako auzapezari ikastolan

diren 3.000 haurrei zuzentzen zuen. Iparraldean euskararen hautua egin duten guztiei zuzentzen zuen.

Gaur egun gure haurren %90 aterpetzen dituen ikastolen %80 eremu publikoetan da osoki edo parte handi batean (lur publikoa, eraikuntza publikoa edo subentzio publikoak ukaiten dituen gure eraikuntza). Gutun horrekin,

suprefetak zioen jadanik eginak izan diren ikastolen kontra ez dela itzuliko, baizik eta proiektu berriak blokatuko dituela. Arazoa da kasik ikastola guztiek dituztela handitze edo ikastola berri proiektuak eta ondorioz ikastola guztiak blokatzen ahal ditu. Hendaiakoa ez bada pasatzen, ondotik heldu diren guziak ez dira pasako. Eta horretan da arazo nagusia. Zer bilakatuko da hizkuntza politika edozein suprefetak ikastolen garapen gelditzen ahal badu egun batetik bertzeraz?

Beraz, zer egin? Manifak antolatu, dudarik gabe. Baita kantaldiak, inauteriak, Olentzero eta Herri Urrats ere! Euskara bizi dela aitortuz, erakutsiz. Bestalde, legea aldatu beharko da eta gure medio ttipi guziak horren alde ezarriko ditugu.

Ipar Euskal Herria ez bada ezer Parisen ere, lortuko dugu! Lortu behar dugu-lako! ■



Iparraldean murgiltze eredia Seaskak bakarrik eramaten duelarik, ez ote du euskararen aldeko politika publikoa parte handiena bere bizkar eramaten? Euskararen alde egiazko politika bat baldin bada, Seaskak eramaten duen lana ezinbestekoa dela aitortu beharko du administrazioak, behin betiko

hor aterpetua: Hendaiako Gure Ikastola. Zerk derri-gortzen du horrelako gezurrik babestea? Lege zahar baten aztarna batzuek; 1850 urtean Falloux diputatuak bere izena atxikiko zuen lege aurkeztu zuen Parlamentuan. Lege horrek, eskola pribatu eta publikoaren arteko oinarri legalak definitzeaz gain, Eskola Katolikoaren baldintza pedagogikoak eta Errepublikaren Elizaren arteko ardurak arautzen zituen. Oso gauza gutti gelditzen da legea zahar horretarik. Kontzeptu bat: eskola pribatuarena, eta arau bat: “Eskola publiko diru publiko, eskola pribatu diru pribatu”.

ZER DIO BAIONAKO SUPREFETAK ?

Baionako suprefetak dio Hendaiako Herriko Etxeak ez dezakeela eskola bat eraiki gero Ikastola bati uzteko. Falloux legean oinarrituz. Baina Seaskan ez dugu legea eta bereziki Iparraldeko errealitate soziolinguistiko eta politikoa berdin ikusten! 1969 urtean sortu



Ander Perez

◆ ARGIAKO BLOGARIA ETA KAZETARIA

Irrati bat etxeko balkoian

IRUÑEKO etxeko egongelan, gura-soek apal batean gordetzen zituzten biniloen artean, bazen bat (bada), bereziki arreta erakartzen zidana. Armiarma itxurako espaziontzi baten alboan, letra gorri handietan ageri zen *La guerra de los mundos* (*Munduen arteko gerra*).

Liluratzen ninduen istorioak, edo, hobeki esanda, istorio horren inguruan sortutako gertakariak: 1938ko urriaren 30ean, Orson Wellesek irrati bidez eman zuen kontakizuna, eta estralurtarrak New Jersey nurreratu zirela azaldu zuen. Esatariak kontakizunari emandako erreallismoak, eta albistegi itxurak, kaosa zabaldu zuen Amerikako Estatu Batuetako jendarrean, jendeak sinistu baizuen Martetik zetorren inbasioa. Gertakizunak, zalantzarik gabe, komunikazioaren boterea erakutsi zuen. Aurten beteko dira orduetik 75 urte.

2004ko abuztuaren 16an, Iruñeko Barcina alkateak Euskal Jai Gaztetxea suntsitzea erabaki zuen, polizia hara bidaliz eta bost egun iraunen zuen husteari hasiera emanez. Iruindar askori ahaztezina zaigun aste horretan, poliziaren batek gomazko pilota bat jaurtitzen zuen bitartean, gazte batek gaztetxearen aldeko garrasia airera botatzen zuen unean eta bizilagunen batek lapikoa protesta eginez kolpatzen zuen momentuan, Alde Zaharreko auzokideen batek irrati atera zuen etxeko balkoira, Iruñeko Eguzki irrati libreak gertakizunaren inguruan egiten ari zen jarraipen berezia etxe barrutik kalera atera nahi izan balu bezala. Gutxira, beste hainbat auzokidek keinu txiki hori imitatu zuten, transistorea lorontzia artera ekarriz, edo etxe

barruan mantendu baina bolu-mena altxatuz. Eta, gogoan dut, Kaldereria kalean, poliziaren oldarraldi batetik ihesi korrikan ari ginen bitartean, irrati entzun nuela, eta joko ederra egin zitzaidala gertatzen ari zen hori, aldi berean, lau haizetatik entzuten egotea. Gaurko perspektibatik ikusita, herri komunikazioaren gailurra iruditzen zait keinu txiki eta espontaneo hori. Orson Wellesen emanaldiak azalean utzitako irratiaren botere hura jasotzen eta bere erara erabiltzen jaki izan zuen Iruñeko herriak.

Ez dakit txikitako biniloarengatik den, eta ez dakit Iruñeko Alde Zaharrean bizi izandako horregatik izanen ote den, baina, betidanik, xarma eta edertasun handiko komunikabidea iruditu izan zait irrati. Agian, horregatik, are tristeagoa da gaurko eguna. Ni jaio nintzen urte berean jaio zen, Iruñean ere, Euskalerrria Irratia. Eta gaur, 24 urte beranduago, berriro ere, lizentziarik ez ematea erabaki du UPNren gobernuak.

Albistea jakin eta denbora gutxira, mespretxu eta gorroto hitzak besterik ez zaizkit okurritzen Nafarroako kulturaren kontra jokatu eta bere buruari Nafarroako Kultur Kontseilari deitzera ausartzen denarentzat. Baina, zorionez, badakit, hasierako haserreak alde egiten digun heinean, injustizia berri honek arrazoi berri bat emanen digula Iruñea euskaldun baten alde sinisten jarraitu eta lanean segitzeko. Eta arrazoi ematen digula, zergatik ez, FMko 91.4 sintonizatu eta irrati Iruñerri osoko balkoi guztietara ateratzeko. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza Plaza



Doinua: Gai horrek badu mamia.



XDZ



Lekeitioko galarrena

Laurogehita lauko negu beltzenetan beltzena, azaroaren hogeian gorritz tindatu zena, kontsulta bat izan baitzen krimen baten eszena. Tiro hotsaren ondoren Bilbo handian barrena berunezko isiltasunaz bete zenean dena, Lekeitioko portuan hasi zen galarrena.

Santi Brouard erahil zuten irauliz egoera, Lopez Ocaña, Morcillo eta Amedo bera, errudunak izan arren libre ziren atera! Audentzi Nazionalera horiek salatzeraz, josi nahian txakurraren hagin-kada minbera, otsoari babes eske joatea beste da.

Amedok aitortu arren Morcilloren fardela, bistan da hitz ho(r)jei diru usaina dariela. Justiziak hautsita du hiruko erregelaz, baina hemen present dugu Madrilen ez bezela, nahiz eta leiho berriei ireki errezela, oraindik itxi gabeko zauri asko daudela. ■

«Arrazoiak ez luke ‘halabehar’ izan behar»

Filologoa da. Ez da eroso sentitzen euskararen mundua delakoan. Haatik, “euskalzulo” samarra da. *Arrazoirik ez dago edukitzerik* (Alberdania, 2012) liburuaren karietara solastatu gara Iñaki Seguolarekin (Azpeitia, 1962). Saio honen aurretik beste bi ditu kaleratuak pentsalari azpeitiarrak. Biak hartu ditugu hizpide elkarriketaren abiaburuan.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

“Pentsatzeak ez dauka zerikusirik errespetuarekin”, esan zenuen orriotan *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo* zure lehen liburuaren kariz. Pentsamendua eta errespetua hizpidera ekarriak abiatuko gara egun ere.

Errespetua eta beldurra elkarren oso hurbil sentitzen ditut. Orduan, ahal den libreen talka egiten dut errespetuarekin. Elkarrekin eta errespetuan bizi behar dugu noski, ez dago edozein gauza esaterik, laguna ere ez dago galtzerik. Beharbada, batzuetan errazegi galtzen dugu eta. Beraz, pentsamenduaren eta bizikidetzaren arteko borrokan ibili beharra daukagula esan nahi dut nolabait.

“Udako ekaitza eta neguko eguzkia”. Horra zure ikur politiko bi. *Nere goringotik* liburuaren adierazleak, besteak beste.

Lagun batek esan dit orain gutxi, nire azken liburua gustatu zaiola baina hitz jokorako isuri gehiegixko egin ote dudan, edo hitz joko hutsean erortzen ote naizen... Beraz, batzuetan *ni neu* geratzen naiz dudan. Nik benetan sentitua edo pentsatua ote den idatzia? Hitz joko polita ote den, edo ondo ematen duela ote den? Edo harrigarria delako ote den, edo zer den? Neguko eguzkia denoi gustatzen zaigu, negu antza, bete-betea ez bada ere. Eta udaran, berriz, erraz aspertzen garenez, bada, orduan, abuztuko ekaitza oso ederra izaten da. Kontraesanerako gustua agertzen du aipu horrek nolabait.

Arrazoiak ez dagoela edukitzerik, diozu orain. Zer bilakaera sumatu duzu zure ibilbidean?



Nere goringotik irratirako jardunen erredakzio moduko bat da, ez zen berez liburu izatekoa. Liburu bi dira. Alde nabarmena dago –formatu kontuaz ari naiz– aurrenekoaren eta azken honen aldean. Hura luzean idatzita zegoen eta azken hau motzean. Ahalik eta motzenez zer esateko gauza naizen jakiteko saioa da hau. Ez da aforismo liburua, zaila baita 300 orrialdeko liburu bat aforismo onez egitea. Hau da: motzean zer?

Donostian jardun genuen, Iñaki Seguolarekin.

Literaturarik ez, berbatuta egin duzula diozu.

Idazle izenarekin ez naiz gustura gelditzen, eta kultura eta literatura izenarekin ere ez. *Berbatuta* hitza asmatu dut, *hiztura* itsusia geratzen delako edo, bizkaierazko erreferentzia hartu dut.

Euskarazko literaturatik asko txepela egiten zait, beharbada, euskaraz egiten den herrian jaio, hazi eta bizi naizelako –orain Azkoitian bizi naiz–. Herri euskaldunetako beste era batera dagokigu idaztea nolabait, ez hizkuntza porlandun, klizez betetako eta grazia gutxi egiten digun hizkuntza. Beste zerbait asmatu behar dugu zorte hori izan dugunok. Hizkuntza natural horren estilizioa egitea tokatzen zaigu. Ez da erraza esplikatzeko.

Liburuan barrena sartu gaitzen, azaletik hasita. Auguste Rodin pentsalariaren irudia beira edukiontzian, ordenagailuaren irudia barne.

Izenburuaz batera Rodinen eskultura dago, pentsalaria edukiontzian erdian izaki. Ez zegoen ontzi barruan jartzerik, azalean jarri behar zen nahitaez. Kontraesana badago beraz,



ez baitago barruan. Nire ideiatxoa izan zen. Pentsatzea edukiontziko pieza geldoa ez izatea, pieza hila, bizirik dabilen zerbait baizik. Edukiontzia kontra dabilen pentsalaria ageri da. Hitz bizitik abiatu beharra, hitz hiletik baino. Ordenagailua, berriz, pentsalari modernizatua da. Rodinen eskultura da, baina denok gabiltza ordenagailuaren aurrean. Nahiz eta nik ez dudan ordenagailuaren aurrean pentsatzen, eskuz idazten baitut, paperean, eta gero ordenagailuan berridatzi.

Arrazoa ez dago edukitzerik, ideiak bai!

Ideiak edukitzekoak dira. Nik ideiak ditut, pentsamendua ere ez dago edukitzerik. Ni holakoa edo halakoa naiz, eta gainerakoa hor nonbait dabilen zerbait da. Arrazoiak berez dabilen zerbait behar luke, sua edo ura bezala, argia bezala. Arrazoa ez dago edukitzerik. Alegia, gauzak gertatzen dira, eta “ez dago eskubiderik” esaten da, baina arrazoa eduki –nahi– izaten da, edo denok gabiltza arrazoiaren atzetik borrokan. Arrazoiak ez luke “halabehar” izan behar. Norberak arrazoa eduki gabe etsitzen ikasi beharko luke. Noski, errealitatea besterik da, arrazoa eduki nahian bizi gara, umeari arrazoa eman behar zaio, eta hortik gatoz gu. Nork bere buruari arrazoa ematea asko gustatzen zaio, baita besteek aitortzea guk arrazoa daukagula ere.

Liburuak 5 interludio ditu. Arrazoiari buruzko testuen etenak daude artean. Bestela eromena. Deitu eromena edo deitu surrealismoa nahi

“Errespetua eta beldurra elkarren oso hurbil sentitzen ditut. Orduan, ahal den libreen talka egiten dut errespetuarekin”.

baduzu. Alegia, idazten ari naiz eta eten behar dut, eta zerekin: xebebrekeriekin, arrazoi gabekeria batekin. Arazoiaren etena behar dugu... Orduan, interludioak zabaldu ditut.

Isiltzeak ere eromena ekar dezake.

Bizitzan egoteko modu bat da isiltzea, eta heriotza isilik egoteko beste bat. Eroak arrazoa ez beste guztia galtzen duela esan ohi da, galtzen du errealitatearekiko lotura, eta isiltasunean ere, erabateko denean, normaltasunetik kanpo geratzen gara. Eromena non hasten den, non bukatu...!?

Zer gisa zu, arrazoirik eduki gabe bizitzen ikaste horretan?

Gaizki. Mundu guztiak bezala. Arrazoirik gabe bizitzea betiko lana da. Norbaitek lan hori hartu nahi izanez gero, behintzat. Oso zaila da. Idazten duen hori ni naiz, pertsona dago, nire izenarekin, bizitzarekin, neure etorkizunarekin, neure arrazoitxo eta ideiekin. Alegia, esan dezakegu agian, arrazoirik gabe bizitzeko gauza garela. Baina, *ni neu* horiek hor bizirik dauden bitartean, etorkizuna eta beldurra tarteko, anabasa gero eta indartsuagoa izanda, gero eta nekezagoa da hori lortzea, arrazoirik gabe bizitzea alegia.

Igeltsua daramazu hankan. Berbarako, nola bizi duzu egoera hau?

Une bat esperimintatzen ari naiz. Eten honek mundutik aterazten zaitu nolabait. Arindu bat da batetik, baina halaber mundu

“Euskaraz aritzen den tokietan beti bada harritzen zaituen zerbait”

Freud bidelagun, baita Axular ere...

Nire belaunaldiko literatoek ez bezala, nik ez nuen inoiz pentsatu liburu bat idaztea. Hogei urterekin publikatzeari ez nion zentzurik ikusten. Axular eta Leizarraga irakurtzeari ere ez nion zentzurik ikusten. Baina, literaturaren ofizioan sartzeko Axular irakurri behar dela uste dut. Urteak pasatu behar direla belarria eta eskua trebatzen, gero zerbait esateko izango baduzu, taxuz esateko. Nik hogei urterekin idazten hasten den jendea ez dut ulertzen. Beno, poemak eta idazkiak idaztea ulertzen dut, lagunari edo txoratzten zaituen neskari erakusteko bai. Baina publikatzeko! 40-50 urterekin egitea normalagoa iruditzen zait.

Hizkuntzak harritzen zaitu oraindik ere. Arrastazioa hitza lekuko.

Euskaraz aritzen den tokietan beti bada harritzen zaituen zerbait. Arrastazioa hitza amari ikasi nion duela gutxi: “Hori arrastaziya!”. Beti arrastaka eta inora ezin iritsi dabilenaz ari da. Hala ere, nahiz ni hiztegi-gile izan lanbidez, hitz solteak baino gehiago esanak du garrantzia niretzat. Horrek ez du hiztegiaren aberastearekin ikustekorik, ez kulturarekin ere. Hizkuntza doan ematen zaigun zerbait da. Ez daukat beste modurik esateko.

Euskarak badu indarrak, badu graziarik? Hiru hizkuntza nagusi ditugu Euskal Herrian. Laugarrena dator indartsu...

Zein da laugarrena? Ingelesa? Urdua ere sartu da Azkoitian. Pakistango jendeak hitz egiten du arabiera. Azkoitian hori da hirugarrena. Euskarak indarra duen

leketan balio du zauritzeko, maitatzeko, gorrotatzeko... Baina leku horietatik kanpo, hiriburu honetan, Donostian, euskara sekta bateko hizkuntza sentitzen dut. Gasteizetik hona datorren batek ez du berdin sentituko, noski. Baina Azpeititik edo Azkoititik ateratzen den batek? Ni ez naiz sekta horretakoa, euskaraz eta asko hitz egiten den herri batekoa naiz. Tristuraz esaten dut, baina nire belarriak sentitzen duena da.

Zendu hitzaren aldean, hil hitza hobesten duzu. Adibidez. Dena dela ere, bizitza, batez ere “bizi boladak dira” diozu.

Eskerrak horri. Askotan ahaztu egiten zaigu hori. Hori sentitzea inportantea da, ezer ez dela betiko. Horrek lagundu egiten digu arnasa hartzen.

guztiak begiratzen dizu. Bestalde, oso astuna da, sei-zazpi kiloko igeltsua daramat eta luzerako doa. Egoerak gaina hartzen dizu, normaltasunetik ateratzea ez da gaizki, baina momentu txarrak ere ez dira gutxi.

Gauza sinpleena ahoz azaltzea da zailena, ziur aski. Azalpenak taxuz emateko iaioagoa jaio edo izan behar da. Horregatik liburua?

Bai, nolabait. Espelikazioak ematen hasia, jende artean, gauzak konplikatuegiak ikusten ditut, eta badut joera zirt eta zart bukatzekoa. Hau da, utz dezagun, oso konplikatua da hau edo beste esatea, areago ez badaukazu pertsona bat zuri aditzeko, orain, zu kazetari bezala egiten ari zarena. Berriketa normalean ez da hori gertatzen. Orduan gauzak jeneralean konplikatuegiak dira eta lerdokeria batekin mozteko joera ere badaukat. Eman ditzakedan arrazoi moduak paperean paratzeko uzten ditut. Egunen batean agian ikasiko dut esaten eta utziko diot idazteari.

Donostian gaude, errazagoa da Azpeitian jardutea, akaso.

Azpeitiak edo Azkoitiak Donostiarekin –edota Donostiak Gasteizekin– ez dute deus ikustekorik. Ni bizi naizen inguruan, kasik, era sanoago batean hartzen dira nire

moduko pertsonaiak, erdi bromatan erdi parrez, adar jotzen: “Zer moduz liburu puta hori?”, entzun dezakezu era sano batean. Jendeak tipo xelebrea edo berezia ikusten zaitu. Hirian bizitakoa naiz, baina ez naiz kapaz hemen gauzak nolakoak diren esateko. Azkoitian edo Azpeitian giro sanoagoa da eta gauzak modu naturalagoan esaten dira.

Naturaren erasoak bizi izan ditugu azkenaldion, mezuak barra-barra zabaldu dira.

“Alerta egoera” da hedabideek maiteen duten hitza. Alerta egoeraren koloreak eta guzti daude. Ez dakigu zenbat! Jendea beldurrez edukitzea ote dute helburu...!? Fedabideak deitzen ditut horiek. Sekula ez naiz hain urruti izan horietatik, ezta horren ez-jakinean bizi ere gaur baino. Etena izugarria daukat aktualitatearekin, batzuetan harritu

egiten naiz: “Ez haiz enteratu?”. “Ez”. Ez dakit zein den azkeneko berria. Ez da alde aurretik pentsatutako jarrera, aktualitatea jarraitzea bazter utzi dudana zerbait da. Hau da, eguneko berria ordukoa, minutukoa, segundokoa bihurtu da. Hori eromena! Belaunaldi kontua izan daiteke, ni ez naiz interesatua horretaz. Astekaria (ARGIA, adibidez) tamaina polita egiten zait.

“Zenbategi gara gure buruaren jabe? Bada, ez gara. Ez guk uste dugun bezain, behintzat. Hori erakusten digu Freudek”



Indernet ere aipatzen duzu liburuan.

Hizkuntzak bere bidea segitzen du. Niri barruko hizkuntzak eta belarriak eskatzen dit Indernet deitzea. Gauza boteretsua, indartua Indernet, ezta?

Tristura al da zure aldarria?

Ez. Noizbehinkako aldarrea da. Tristurak behera egiten digu bultzatzen, tristura ez da gauza ona, baina gehiegizko poztasunaz aritzea ere ez. Hau da, historian egindako aldrebeskeria eta barrabaskeria handienak une jakin batean egin dira, une umoretsu batean, obeditzeko umore arin ergel baten pean. Horri kontra-jarriaz aipatu dut tristura, baina ez defendatzen. Nik neuk badut tristurarako joera, eta batzuetan beharrezkoa da, gauzak behetik hobeto ikusten direlako goitik baino.

Jaungoikoa hizpide: zer moduz berarekin?

Puf... Orain energiari deitzen zaio jainkoa. Dena da energia, "energetikoa badakit zer, ez dakit zer, energia ona eta txarra...". Gehien aditzen dudana hitza da. Dirua ere bai, jakina, jainkoaren aurpegi garaikidea da. Alde gogorretik begiratuta jainkoa dirua da, eta bigunetik begiratuta energia. Denok energia gara.

Nola daramazu hori?

Jakin-mina beti dago, hori ez dago tapatzerik, noski. Erori gara hemen. Nola iritsi gara honetara? Erantzuna aurkitzea oso zaila da, jakina. Beraz, ezjakintasunean igeri, batzuetan eroso, eta beste batzuetan itsasoan nola, olatuak nola datozen arabera.

"Tristurak behera egiten digu bultzatzen, ez da gauza ona, baina gehiegizko poztasunaz aritzea ere ez. Historian egindako barrabaskeria handienak une umoretsu jakin batean egin dira, obeditzeko umore arin ergel baten pean".

Jainko helezin horrez gain izen propio batzuk ere ageri dira liburuan. Hala nola, Sigmund Freud.

Zure buruari inportantzia kentzen laguntzen dizu Freudek. Izan ere, azkenean zenbatean gara gure buruaren jabe? Bada, ez gara. Ez behintzat, guk uste dugun bezain. Horixe bera erakusten digu Freudek. Hor badaude indar batzuk eta gure kontzientziara edo azalera ailegatzeko zaiguna horren parte txiki bat besterik ez da. Kontuz gure burua nola aurkezten dugun, zer esaten dugun. Hori da borroka. Nik ere borroka hori daramat. Ez pentsa nire buruari inportantzia kentzen diodanik horregatik. Liburu bat publikatzen dugunean, badaukagu zerbait, agertzeko behar bat edo. Apeta bat, zirrinta bat. Orduan dator betiko borroka. ■






GAZTANAGA SAGARDOTEGIA

*Puntako instalazio eta teknologiak, kalitate oneko sagarra.
Janari tradizionala, kategoria goreneko produktuekin
Jatetxea urte osoan irekita*

Buruntza auzoa / 20140 Andoain (Gipuzkoa) · ☎ 943 591 968 · Faxe: 943 594 021
info@sidreriagaztanaga.com · www.sidreriagaztanaga.com

Kritika eta ziria helduentzat, marrazki bizidunen bidez

Tabernan zigarroak eta kalean kontainerrak erretzen ziren garaikoak dira The Arlotes euskarazko marrazki bizidunetako protagonistak. Umorez eta musikaz lagundurik, Ruben Sanchez eta Uraitz Soubies proiektuaren egileak elkartu zituen XX. mende amaierako Gasteiz hura ekarriko dute gogora. Hamar kapituluak ARGIAko Beranduegi saioan egongo dira ikusgai; lehenengoa aste honetan.

| AXIER LOPEZ |

RUBEN SANCHEZ bertsolaria eta Uraitz Soubies musikari gasteiztarrak The Arlotes heldu zein gazteentzat egindako euskarazko marrazki bizidunen egileak dira. Gasteizko Kutxi kaleko ostegun famatueta giroan, zurrut artean, sortu eta hogeitatu urteren ostean gauzatu da proiektua. The Arlotes rock musika taldeko Harry, Bego, Iñi eta Goiz kideen bidez Gasteiz eta oro har, Euskal Herriko garai hura gaur egungo begietara ekarri dute.

Euskal Herriko komiki eta fanzine satirikoen tradizioari jarraiki, The Arlotes proiektuko egileak *TMEO*, *Ostiela*, *Putz* edota *Sabinator* bezalako lanen iturritik edanak direla nabari da. Baita nazioartean sona handia

eskuratu duten The Simpsons edota Family Guy telesailetatik ere. Umorea, kritika, ziria eta musika baitira Arabako hiriburuan kokaleku duen atalkako marrazki bizidun hauen ardatzak.

Ordenagailuz animaturiko marrazkiez gain hezur-haragizko aktoreek antzeztutako eszenak ere tartekatu dituzte. Haien Twitter kontuan irakurri ahal izan dugunez, Txerra Bolinaga RIPEko bateria-jotzailea *Enamorado de la muerte* abestia jotzen azaldu zenekoa, tarteko.

Sanchezek adierazi digu marrazkiak maila teknikoan kalitate onekoak direla: “Halere, indar-guneak pertsonaien bitartez azaleratu nahi ditugun pasarte, kezka eta kontraesane-




Iñi

Gipuzkoarra. Lehen kolpean oso tipo gogorra dela ematen du baina lasaia da. Nahiko “normala”. Gaya da baina Harryk ez dio entenditzen. Bateria jotzen du.




Bego

Bizkaitarra da, hippy itxurakoa, eta arlotea den arren, taldeko intelektuala da. Gitarra jotzen du eta literaturan eta gai sozial eta politikoetan jantziago edo arduratuago dago.



Harry

Taldeko gasteiztarra, denetan arloteena eta bizitzaren aurrean heldu gabe dagoena. Taldeko abeslaria da, mami ona du baina findu gabea. Gurasoen etxean bizi da.



tan daudela azpimarratuko nuke. Kaleko gai politiko eta sozialez diharduten marrazkiak, euskara gertukoaz eta gazte ikuspegitik egin-da, jorratu gabeko esparrua dela”.

Musikak ere aparteko presentzia izango du. The Arlotes musika taldeak joko dituen abestiak Mexiko DF eta Gasteiz artean bizi den Soubies—Trikitixa Kontrairo eta La Mexikana Klandestina taldeetan aritutakoa— eta Sanchezek propio sortutakoak dira. Zentzu berean, eta egiletako bat bertsolaria iza-

nik, bertsoaren munduari egindako keinuak ez dira urriak izango, lehendabiziko kapitulu- luan Harryk Euskal Herriko bertsolari txapelketa irabazteko duen ametsak erakusten duen moduan.

Batetik, krisiak eta zenbait gauzetarako dagoen diru eskasiak eta bestetik, proiektua independentziaz burutu nahiak crowdfunding-aren bidea hautatzera eraman ditu egileak, proiektuarekin aurrera egin ahal izateko. Azken urteotan gero eta ugariagoak dira Internet bidezko finantzazio kolektiboaren bitartez argia ikusten ari diren proiektuak. The Arlotes-ek inguruko lagun, saltoki eta zenbait komunikabideren laguntzaren bitartez eskuratu du beharrezko zuten 4.000 euroko babes ekonomikoa. Soubiesek esan digu proiektua ezagutarazteko bide eraginkorra dela: “Jendearengan sortu duen erantzun positiboak, segurtasuna eta animoak ere eman dizkigu”.

ARGIA ere proiektua diruz babestu dutenen artean dagoenez, seriea osatzen duten hamar atalak –zazpi eta hamar minutu artekoak– Beranduegi saioan eskainiko ditugu. Aste honetan hasi eta uztailearen amaieran sareratuko dute azken kapitulua. Atalek jasoko duten harrerak eta egileei geratuko zaizkien indarrek erabakiko dute uztailekoa proiektuaren amaiera izango den ala geldiduna.


Ikus The Arlotes-en lehen kapitulua ARGIAren webgunean, Beranduegin. ■



Goiz

Musika taldean lan egiten duen bakarra. Babak eltzetik ateratzen ohitua. Kastakoa. Jenioa soberan du. Pisuan bizi da Bego eta Iñirekin. Baxu-jotzaila.

THE ARLOTES



Helduen literatura | ITZULPENEA

Hamar
Andrej Longo

Itzultzailea: Josu Zabaleta
Pasazaite, 2012

Hustu gabeko iturria

HAMAR zenbaki esanguratsuak (*Dieci*, 2007) eman dio izena Andrej Longoren liburuari. Bertan, Hamar Aginduak hari narratibo gisa hartuta, Napoliko egunerokotasun bortitza irudikatzen duten kopuru bereko istorioak biltzen dira.

Jainkoak agindu bezala zintzotasunez bizi beharra dugu, eta horretarako 1etik 10erako lehentasun-ordena sortu zuen. Hau da, zeruan bake eternoa eskuratu ahal izateko, lege moral perfektuaz jabetzeko errezeta pasa zigun.

Denborak aurrera egin ahala Lege Santuak guregan eraginik ez duela uste dugu baina, tantak badira ere, iturri beretik edaten jarraitzen dugu. Ihesi egin nahi izan badiogu ere, 1etik 10era edo dena dela, estructuresa jerarkiko baten menpe bizi gara. Horregatik, katolizismoak ezarri digun Jainkoaren gauza guztien gaineko lehentasunaren dogma forma eta irudi desberdinak hartuz joan dela esan daiteke. Horren errepresentazio argia, hain ezaguna zaigun mafia siziliarrean aurkitzen dugu.

Napoliko bazter ilun itogarrietan giroten diren ipuinek helarazi bezala, mafiak ordezkatu du Jainko Jaunaren irudia. Katolizismoaren printzipioetatik ez oso urrun, La Cosa Nostrak ezarri duen arau zerrenda –Capo(jainko)aren esanei kasu egin, lanean zintzoa izan, familia eta oinordekotzaren garrantzia, ondasunak, emakumearen isiltasuna–

bilakatu da Napolin bizirauteko lege sakratua. Liburuan barrena murgildu ahala konturatzen gara, jainkoak gauza guztien motor gisa funtzionatzen duen bezala, gertakizun ororen atzean mafia ezkututzen dela: “...eta arauak bete nahi ez badituzu, ez dago dudarik bala bat sarraraziko dizula buruan. Horrela funtzionatzen baitute hemen gauzek” (8. orr).

Josu Zabaletak euskaratu dituen hamar istorio gordin hauetan, Longok, beste askok aurretik egin duten bezala, jainkotasunaren sinbologia zapuztu nahi izan duela pentsa dezakegu. Oraindik ere kultura judu-kristauan errotzen den tradizio bati uko eginez, miseria gizakiarena baino ez dela agerian uzten duen errealismo zikinaren korronteari heldu dio Napoliko alderdi gogorrenaren ereduaz baliatuz. Azken finean “norbaitek egin behar zuen, ezin genuen betirako jarraitu horrela” (43. orr).

Ipuin liburu gehienetan bezala, honetan ere denetarik topatzen dugu. Badira astun egiten direnak, hotz uzten dutenak, amaiera irekikoak eta alderantziz, baita bitan edo gehiagotan irakurtzea merezi dutenak ere. Borobilduz, Longoren liburu irakurrien zerrendan sar genezake. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Les vêpres siciliennes (Bezpera siziliarrak), Verdi.
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: John Mauceri. Bilboko Opera Korua. Zuzendaria: Boris Dujin. Bakarlarriak: Lianna Haroutounian, Gregory Kunde, Vladimir Stoyanov eta Dmitry Ulyanov. Eszena Zuzendaria: Davide Livermore.

Gaur egungo egoera eta Verdiren ikuspegia

GEZURRA BADIRUDI ERE, XIX. mendearen bukaeran egindako obra batean, erdi aroan kokatua gainera, ondo irudikatu daiteke gaur egungo egoera politikoa, ez bereziki hemengoa, mundu osokoa baizik.

“*Les vêpres siciliennes*” izeneko operan, Verdik, erdi aroko *Cronica di lu rebellamentu di Sicilia contra re Carlu* libretoan oinarriturik, bere garaiko politika giroa azaldu nahi izan zuen. Baina bitxienda, obra bera hartuta, eta honi bira txiki bat emanda, Davide Livermore eszena zuzendariak egin duen bezala, gure garaiko politikaren ezaugarriak antzeman ditzakegula: ideala, mendekua, estrategia eta boterearen kontraesanak. Jatorriko obran Italiaren etsaiak frantsesak ziren, eta, Livermoreren ustez, herritarren etsaiak gaur egun telebista, politikariak, armada eta beste dira. Ideia nahasketa hori ondo irudikatuta gelditu zen OLBE, Torinoko Teatro Regio eta Lisboako São Calos Antzoki Nazionalaren arteko produkzio honetan.

Verdiren musika aitzakia izan zen saio aldarrikatzailea eskaintzeko. Hirugarren ekitaldian, ordu erdi luze bat igaro zen bideo proiektzioen artean: M 15eko suminduak, Europako agintariak... Bukaeran txaloak eta batez ere txistualdiak izan ziren. Bakoitzak egingo du horren interpretazio partikularra.

Baina goazen alde musikala aztertzeraz. Ona, oso ona izan zen interpretazioa. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, John Mauceri-ren batutapean, oso ondo portatu zen. Uneoro malgua, freskoa eta oso “verditarra”, laguntza orkestral aproposa egin zuen. Eta, zeresanik ez, bakarlarri mundialak izan genituen. Gregory Kunde tenoreak Henri dotorea egin zuen. Ahots argitsua du eta ondo mugitzen zen eszenatokian. Vladimir Stoyanov baritonoa ere ondo aritu zen Guy de Montfort pertsonaia egite-rakoan. Baina benetako sorpresa denontzat Lianna Haroutounian soprano armeniarra izan zen. Lehenengo aldiz entzun dugu abeslari hau Bilbon, eta



Goian, Gregory Kunde tenorea. Ezkerrean, Lianna Haroutounian sopranoa.

espero dugu azkena ez izatea, hain perfektua izan baitzen Hélène pertsonaiaren interpretazioa.

Aparteko musikaltasuna du soprano honek eta tinbre zoragarria. Izugarritzko txalokadak jaso zituen. Oso inpresio ona eman zuen Dmitry Ulyanov baxu errusiarrak ere. Jean Procida komentzigarria egin zuen, eta kalitatezko ahotsa luzitu. Bilboko Opera Korua, Boris Dujinen zuzendaritzapean, oso egoki uneoro. Saio disfrutagarria, alde guztietatik begiratuta. ■

Montserrat
Auzmendi



MAIATZ, euskal emakume sortzaileen leihoa



Sareinak taldeak apailatutako mahai-inguruan Itxaro Borda, Amaia Lasa eta Marikita Tambourin mintzatu ziren, Josune Muñozek gidaturik. Otsailaren 23an izan zen hitzordua, Baionako Euskal Museon.



Idazleak saretuz saritu du Maiatzek emakumea

MUSEOKO LEIHOEZ bestaldean elurra mara-mara ari zueno, *Maiatz, euskal emakume sortzaileen leihoa* lema-pean ari ginen literaturaren mentura zaleok: hogeita bost emazteki inguru eta lau gizon. Literatura eta emakumea zen gaia. Sareinak taldeak saretu literatura zen objektua, *Maiatz* aldizkarian nahiz liburuetan parte hartu duten emakume idazleak subjektu. Literatur sistema, kritika literarioa, ideologiak... hizpide.

*Maiatz*en historiaren eta istorioen berri kontatu ziguten mahaikideek emeki. 1980ko hamarkadan euskal literaturaren sareak zulo asko zuela erran zuten. Alabaina, literaturaren sistemara jostun eme anitz bildu da harrezkero, zorionez. *Maiatz*ek orori jostorratza eman dio eta saretutako testuen %30 emakumeek harilkatu dute. Sarea ez da Iparraldean soilik harildu gainera, Hegoaldeko idazleek ere sorleku izan dute *Maiatz*. Anar-tean, Hegoaldean izan dira ere literatur aldizkariak. *Susa*, konparazioe. Alta, emetasun ezaugarri izanik ere, *Susa* gizonen biltoki izan zen batez ere.

1970eko hamarkadara arte, apezek eta notableek baino ez zuten literatura egiten Iparraldean. *Herria* zen euskaldunon erreferentzia nagusia, ez haatik gaitzetsia. Literatur eremua

basamortua zen, eta are basagoa emakume idazle bakanentzat. Hegoalde-tarrak frankismotik ateratzeko ahaleginetan ari zireno, Iparraldekoak François Mitterranden sarean zabuka hasi ziren. Laborarien seme-alabak plazaratu ziren idazle gisa, baita hiriko bizizale bilakatu ere. Ilusioa bazen, eta ez txikia. Nahiz eta ilusioa –Itxaro Bordak zioenez– gal-korra izaten den, bikoteetan agitu bezala. *Maiatz*ek idazleen askatasuna zabaldu zuen, emakume idazlearena partikularki. Eta ilusio hura emeki ari du egun, elur malutak antzo, ilusioak segitzen du euren baitan.

Marikita Tambourinek esperantzari irekitako leihoaren gisara azaldu zuen *Maiatz*. Kanpoan ilun antzo egonagatik –Oskarbi taldea gogoan– beti atertzen duela erran zuen. Tiraderan geratu testuek argia ikusten dutela noizbait, neguan ez bada maiatzean; emakumeen ahotsez izkiriatuak izanik ere. Berak, gizona izanik ere, Luzien Etxezarreta izan zuen bere testuen kriseilu.

Bere etxean Iparraldea eta Hegoalde beti izan direla bat erran zuen Amaia Lasak. Bere gurasoak, ez halabarrez, Baionako Katedra-lean ezkondu baitziren, aitaxi-ama-txi frankismoarengandik iheslariak izaki. Ez alferrik. *Maiatz* Lasaren

literatura etxea bilakatu da, ez alferrik ere, Amaia Lasa *Maiatz* sarean irakurleak biltzen –hots, harpidedu-nak egiten– saiatzzen da.

Maiatz etxean espresio guztiak sartzen dira: euskara batuan nahiz euskalkietan paratuak, baita gure erdaratatik nahiz munduko erdara anitzetik ekarriak ere. Idazleek atxikitzen dute etxea zutik, liburu-garraioetan “asto lana” egiten dutenak ahantzi gabe.

Maiatz ez da izaterik Etxezaharreta eta Borda gabe. Alta, Itxaroren aburuz, etxeko maizterren –maizter nagusiak biak izaki– ahalegina naturala izan da. Luzienek garrantzia kendu zien subjektuei, pertsonak ez dutela horrenbesteko munta erranez. *Maiatz* garaiko giroan beharrak altxatutako etxea dela argudiatu zuen.

Kanpoan dena ez zen beltz, ez barruan dena zuri ere. Kanean elur maluten antzera aireratu ziren barruan emaztekien izenak, engoitik bertaratu ezin diren pertsona emankorrek: Marijane Minaberi, Daniele Albizu edota berriki hil den Helene Etxekopar Etxart. Haren arima gelan kulunkatu zen Amaia Lasaren ahotsean. ■

Mikel Asurmendi



2012 DSA 14 asteroidea, ezintasun adibidea

45 METROKO DIAMETROA eta 135.000 tona dituen harri puska, 2012 DSA 14, guregandik 27.680 kilometrora igaro zen otsailaren 15ean; egun bereko goizean –Errusiako ordutegian–, hamar tona inguruko meteoritoa guregana heldu zen.

Meteorito txiki horrek 200.000 metro koadro kristal hautsi zituen, milioi bat biztanle dituen Txeliabinsk hirian. Kristal hautsien ondorioz milatik gora zauritu izan zen, eta diru-galerak 25 milioi euro ingurukoak izango direla uste da. Antza, eta zorionez, meteoritoa Ural mendietako laku izoztu batean erori zen; askoz okerrago izan zitekeen, beraz. Errusiarren misilen aurkako sistemak ez zuen meteoritoa detektatu.

Ostiral gauetan gure ingurutik pasa zen asteroidea, berriz, 2012an detektatu zuen NASAk, baina hori baino ez zuen egin, munduan dugun teknologiarekin asteroide handi baten aurka ezer egiteko modurik ez dugu eta.

Hainbat estimazioren arabera, 40 urtero hurbiltzen zaigu asteroide handi xamar bat, eta 1.200 urtero Lurra jotzeko arriskua dago. Orain 66 milioi urte, hamar kilometroko diametroa zuen asteroideak jo zuen planeta, eta ondorioz, besteak beste, dinosau-roak desagertu ziren. Harri puska batek gure historia alda dezake. ■



REUTERS



Amazoniako lehorteen ondorioak, gero eta larriagoak

NASAREN sateliteek 2000 eta 2009 bitartean Amazonian ateratako irudiak aztertu dituzte, eta ondorioak kezkarriak dira. Lehortek beti izan dira, baina lehorteen artean oihana beti izan da gauza bere burua lehenagoratzeko. Aldiz, aipatutako hamarkada horretan ez da hala gertatu.

ttiki.com/47580
(Gaztelaniaz)

Umetokia ere, hizkuntza eskola

AEBetako eta Europako hainbat unibertsitatek elkarrekin egindako ikerlanaren arabera, umetokian dauden umeez, haurdunaldien azken hamar asteetan, amari entzundako hitzen soinuak ikasten dituzte. Hau da, umeen ikasketa prozesua uste zena baino lehenago hasten da.

ttiki.com/47581
(Gaztelaniaz)

Txernobylen abisua

MAURO AL



GARRANTZI GABEKO zerbait bezala igaro bada ere, Txernobyleko zentral nuklearrean dauden eraikinetako baten teilatua behera etorri da. Gero eta zentral nuklear gehiago itxiko dira datoren hamarkadan, eta itxi ondoren egin behar diren eraisketarako hain dira garesti eta konplexuak, zentralak bere horretan lagatzea tentazioa

izan baitaiteke, are gehiago krisi garaiotan. Nork inbertituko du ezertarako balio ez duen eraisketan? ■



Erradiazio kosmikoak alzheimerre azkartu dezake

Erradiazio kosmikoa gizakia-erentzat arriskutsua dela jakina zen; hain zuzen ere, astronautek, beraien babesa aproposa ez bada, minbizia izateko arrisku handia dute. Gainera, erradiazioak alzheimerrearen garapena azkartu dezake, berriki egindako ikerketa baten arabera.

ttiki.com/47583
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zigarroa eta kafea

ARGI IBILI! Aldamenean igarotzen denaren larruzala urratuz “alde hemendik” esateko berea arantzaz janzten duen laharra (*Rubus fruticosus*), janez gero lagun minenek bizkarrean hartu eta hilerrira eraman zaitzaten hostoa pozoiz asetzen duen hagina (*Taxus baccata*), kolpez seko gelditu arte bihotza dantzan jartzeko gauza den gaiaz sustrai muturretik lore punttaraino blaitzen den kuku-praka bihozgabea (*Digitalis purpurea*)... Bere burua babes-teko zertaraino iritsi daitekeen landarebanakoa! Belarjaleon hortzak urrutiratzeko, jakina.

Guk, adibidez, landare hori utzi eta beste gozoago bati egingo diogu kosk. Jate kontuetan gu baino egoskorragoak badira, pozoiak pozoiz landare kaltegarrienari ere erasoka jarraitzen dutenak. Setoso-temoso alaeenak!

Tabako-belarrak (*Nicotiana tabacum*) badu egoskor horietako bat: tabako-belarraren har grisa. Tabakoak berezko duen pozoia, nikotina, harrari bost eta kosk. Nolanahikoa ez den pozoiz horrek barrenean kalterik ez egiteraino eboluzionatu duen bakanetakoa da har hori.

Har horrek, eboluzioan askok



M. MARTIN VICENTE-CC BY SA

Tabakoaren landarea (*Nicotiana tabacum*).

usteko ez lukeen arerioa topatu du tabako-belarrean, sekulakoa: tabako erretzaile jendea. Erretzaileak eskuera behar du noizbehinkako dosia, ordu erdirokoa, ordurokoa, otordurokoa, larru joaldirokoa...

Eta hori ezin eztabaidatuzkoa da, bai ala bai. Tabako erretzaileak patrikatik hartua duen mendekotasunak pentsaezina egiten du belarrak gabeko tarte bat, egun bakar bat, ordu bakar bat, minutu bat... Har ziztrin batek nola joko digu adarra! Hark jan gure plazeraren iturria? Kosk eta kosk desagerrarazi nire zoriontasuna? Irten-

bidea patrikakoak biltzen dituen tabako ekoizleak asmatu du. Tabako-belarra genetikoki eraldatu dute, eta koskaizoa ematera hurbiltzen zaion hara izorratu. Nola bada? Belarrari kafeina sortzeko gaitasuna eman diote. Eta nikotina bai, nikotina gustukoa du, baina, kafeina? Mesedez, faborez eta otoi, kafeinarik ez! Batek zioena: kafean nikotina bila hasi beharko dugu! Eta, zenbat apustu? Konturatzerako hemen dugula arantzarik gabeko laharra? ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Zure irakurketek edonola eta edonoiz kimatzearekin sentsibilizatu naute. Kimatzekotan, behar bezala eta sasoi egokian kimatzen ikasi nahi nuke. Ezagutzen al duzu euskaraz, gaztelaniaz zein frantsesez idatzia den libururik ezagutza horretaz jantzi nadin? Mila esker.

Garazi Cristobal (Urruña)

Kaixo Garazi. Inausketari buruzko liburu aukera handia da. Horien artean duela gutxi argitaratutako hau gomendatuko dizut: *Manual de poda suave. Árboles frutales y ornamentales. Respetando al árbol y su forma natural*. Nafarroako La Fertilidad de la Tierra etxeak argitaratu du

eta Alain Pontoppidan ezagunak idatzia da. Zuhaitzetan aparteko interesik izanez gero, jo baita ere www.agencedesarbres.org gunera; Pontoppidan bera elkarte horretako sortzaileetako bat da.

Ikasketa on. ■

Argo filmaren lizentzia poetikoak

DGGOSTUDIOS.COM



Argo (2012) filmak Irango bahituen krisia kontatzen du. Irudian, *Argoren* zuzendari eta aktore Ben Affleck eszena batean. BBCk gertakizun haietako protagonistetako bat elkarriketatu du, Mark Lijek, filmaren errealismoa aztertzeko.

TEHERAN (IRAN), 1979KO AZAROAREN 4A. 500 bat ikasle islamistak AEBetako enbaxada inguratu eta hartu zuten, Ruhollah Jomeini aiatolah berriak AEB eta Israelen aurka egindako deiari erantzunez. 66 herritar estatubatuar bahitu zituzten –sei ihes egitea lortu zuten– eta, horrenbestez, 444 egun iraungo zuen Irango bahituen krisia hasi zen. Sari mordoa jasotzen ari den *Argo* filmak gertakizun hori du hizpide, enbaxadatik ihes egitea lortu zuten sei lagunak bizipenak bereziki. Sei horietako bat Mark Lijek izan zen eta BBC kateak filmari buruz galdetu berri dio elkarriketata batean.

Filmaren arabera, Mark eta Cora Lijek, Bob Anders, Schatz Lee eta Joe eta Kathy Stafford Kanadako enbaxadore Ken Taylorren etxean ezkutatzera eta elkarrekin bizitzera behartu zituzten. Baina benetan seikotea bi etxetan banatu zuten (batzuk Taylorren etxean, besteak John Shardown funtzionarioaren etxean). “Filmean, talde dinamika horrek tentsioa areagotzen du, tirabirak eragiten ditu, dramatismoa handitzen du” dio Lijek, ulerkor, baina ironia ukitu batekin. “Ez da egia etxetik ateratzea debekatuta genuela; Shardownen etxeko lorategian lasai ibiltzen ginen. Baina egia da ezer gutxi

genuela egiteko. Irakurtzen eta Scrabblean ematen genituen orduak. Eta edaten”.

Filmean ageri denez, CIAk plan bat pentsatu zuen sei estatubatuarrek hegaldi erregular batean Iranetik atera ahal izateko: zientzia fikziozko film batean lanean ari ziren zinegile kanadarraren itxurak egingo zituzten. Filmeke elementurik sinesgaitzetakoa izanagatik, CIAren plana egiazkoa izan zen. Hala ere, Hollywoodeko ekoizpenean ez bezala, errealitatean plana ez zen sekula martxan jarri. “Baina adorea, konfidantza eman zigun, aireportuan galdeketa zorrotza egiten baziguten zer erantzun ederki ikasi genuelako”.

Eta halakorik ere ez zen izan: goizaldeko 5:30ean, irandar indar iraultzaileek ez zioten seikoteari ia eragozpenik jarri dokumentazio faltsua eskuetan hegazkina hartzeko, *Argo*n pertsekuzio eta estutasun eszena zirraragarriak ikusten diren arren. “Oso guardia gutxi zeuden goizeko ordu txikietan, iraultzaile engaiatuenari ere ez baitzaio hain goiz jaikitzea gustatzen. Paper faltsuak ziren gure ahulgune nagusia, baina ez zieten ia jaramonik egin”, Mark Lijeken hitzetan.

Eta horrek guztiak, egia alegia, ez du ematen sari asko jaso nahi dituen film baterako. ■



Arrastoak

Munduko lehen DJa



RON DIGGINS izeneko irrati ingeniari britainiar batek lehen nahasketa mahaitzat jotzen dena asmatu zuen 1945an. Etxean egin zuen bi biragailuz, argiz, mikrofonoz, amplifikagailu batez eta hamar bozgorailuz osatuta. Egurrezko oinarria egiteko, hilkutxa batez baliatu zen. Digginsen Diggola izena jarri zion mahaiari.

1947an estreinatu zuen tramankulua eta 50 urtez aritu zen disko-jar-tzaile lanetan, 20.000 festa baino gehiagotan, hasieran, egile eskubideak zirela eta, musikagile asko aurka izan arren. Digginsen berak zioen ez zuela ezertxo ere asmatu, beste batzuek asmatutakoari beste erabilera batzuk eman baizik. ■

Europaren etorkizuna erabaki zuen borrokaldia

Gasteizen edonork identifikatu dezake Andra Mari Zuriaren plazan dagoen monumentua. Bonapartistek orain 200 urte galdutako bataila oroitzen du. Nahitaezko irudia gidaliburu turistikoetan. Kale-izendegian ere presentzia nabaria duen jazoera da eta, hala ere, gasteiztarrek ez dute ondo ezagutzen. Nazioartean, ordea, Gasteiz Europako mapan kokatu zuen.

| URKO SÁENZ DE BURUAGA |

XXI. MENDE HASIERAN, Gasteizko Andra Mari Zuriaren plaza eraberri-tzeko proiektua abian jarri zenean, eztabaida bizia sortu zen haren erdian dagoen monumentuarekin, arrazoi estetikoak medio. Gutxi- zekiten zehazki monumentu horrek oroitu nahi zuena zer zen, askoren- tzat hortik kendu behar ez izateko arrazoi nagusia “betidanik egon delako” zen. Monumentua 1813ko Gasteizko Batailaren mendeurrena gogoratzeko paratu zuten 1917an, eta Gabriel Borrás eskultoreak egina da, harriz eta brontzez. “Gasteizko Batailari” goiburua darama, eta behealdean “Espainiako indepen- dentziari” esaldi polemikoa ere bai.

Europa osoan interes, taktika eta joko ugaritako gerra zabaldua zegoen Napoleonek bere inperioa- ren hedapena hasi zuenetik. Hain- bat herrialdeen arteko gerra hartan nork bere buruaren alde egiten zuen, eta Euskal Herriko erakunde eta herritarrek ere modu horretan jokatu zuten. Bada, Gasteizi, gudal- di handi eta konplikatua hartako era- bakigune bilakatzea suertatu zitzaion. Napoleondar inperioaren azkenaurreko hatsa izan zen –Waterloon eman zuen azkena–. Orduz geroztik, Arabako hiriburua- ren izena Europako hamaikatxo toki eta idazkitan aurki dezakegu.

Gasteizko 1813ko batailari atze- rrian ematen dioten garrantziaz



BERT2010.WORDPRESS.COM

Gasteizko Andra Mari Zuriaren 1813ko borrokaldia gogoratzeko duen monumentua dago. Orduko hainbat pertsonaia, janzkera eta gertaera irudikatzen ditu.

TERMOMETROA • GASTEIZ 1813

ondo jabetuta dago Emilio Larreina. Bere semea Eskozian ikasten ari zela, unibertsitateko irakasle batek “Wellingtonen Gasteiz”-ez galdetu zion. Bere aita Gasteizko Batailan aditua zela erantzun zion. “Orduetik, nire semea ez zen unibertsitatean biziko, irakaslearen etxean baizik”.

Larreina, Gasteiz 2013 Elkarte Historikoaren lehendakaria da. Gaiaz idatzi den libururik zehatzenetakoa (*La Batalla de Vitoria 1813. El fin de la aventura*) argitaratu zuen 2009an. Liburua idazteko batailaren ibilbidea egiten zuenean, arrunta zitzaion ingelesak aurkitzea. “Gaur egun gehiago dakite batailari buruz Ingalaterran Gasteizen baino”. Hala dio, Patxi Vianak ere, elkarte-ko idazkariak.

Ingelesen gutzia, frantsesen salbazioa

Iberiar Penintsulako Gerran edo Espainiako Independentzia

Gerran (1808-1814), Gasteiz gune estrategiko bihurtu zen. Bailenen galdu ondoren José Bonapartek Montehermosoko jauregian ezarri zuen bere gortea. Okupazioaren momenturik gorena 1813ko ekainaren 21ean jazo zen, batailaren egunean.

“Napoleonen 60.000 soldadu iritsi ziren –dio Larreinak– eta hurrengo egunean 80.000 ‘aliatu’ (britainiarrak, portugaldarrak, espainiarrak...), haiei kontra egiteko prest. Arabako lautadan 170.000 lagun pilatu ziren, halakorik ez zen ikusiko XX. mendeko 70eko hamarkadara arte. Batailaren egunean, goizeko zortzietan, kanoikadak entzuten hasi ziren herritarrak. Egun osoa kanoikadak entzuten, gero eta gertuago: lehenengo mendietan, gero lautadan...”.

Frantsesek euren ihesaldian zeramaten gehiegizko zamak, garrantzi handia izan zuen batailaren epilogo-

an. Gasteiztik Frantziara joateko bide naturala, Debako haranetik igarotzen dena, itxita zegoen Durana herriaren parean. Horregatik, Aguraina abiatu ziren gaurko Gasteizko Santa Luzia auzoan barrena. Bide hori jarraituz muino bat igaro behar zuten. Ezinezkoa zen hori gurdiekin igarotzea, eta militarrek eta ihesean zihozten beste hainbat familiek, zeramaten guztia utzi behar izan zuten. Hara zer dioen orduko bertso batek:

*Kotxe ta karromato,
litera ta burdi,
Bitoria'n gelditu da
ondasuna lodi,
gainera artilleria
bertan dabe itxi,
frantsesen erregeentzat
ezta lotsa gutxi.*

Tropa aliatuek pertsekuzioa eten zuten altxor hura jasotzeko; antza, haien buru Wellington jeneralari ez

1819an Westall R.Ak Londresen egindako *Gasteiz* grabatua. Bertan ikus daiteke José Bonaparte hiritik ihesean.



KMK

zitzaion batere gustatu, horrek salbatu baitzuen frantziar gudarostearen zati handiena.

Gasteiz kalte handirik izan gabe libratu bazen ere –hirian ondasun ugari zituen Miguel Ricardo de Álava jeneralak esku hartu zuelako–, ez zen berdin gertatu frantsesek aurrerago bisitatu zituzten herriekin. Gosez eta egarriz, Aguraina iritsi ziren eta herria arpilatu zuten.

Okupazioaren lazturak

Gasteiztarrek etxean giltzapetuta bizi izan zuten bataila hura, zer gertatuko zen jakin gabe. “Frantsesen porrota benetako

Gasteizek ez zuten kalte handirik izan –Álava jeneralak esku hartu zuelako–, baina frantsesek, aurrerago bisitatu zituzten herriak arpilatu egin zituzten

askapena izan zen Gasteizko gizartearentzat”, dio Jose María Ortiz de Orruñok. Historia Garaikidean doktore da Ortiz de Orruño, EHUKo irakasle, eta Gasteiz 2013 elkarteko kidea bera ere: “Arpilatzeak eta zerga itogarriak jasan zituzten sei urteko okupazioan”. 1800 inguruan 6.500 biztanle bizi ziren Gasteizen. Gerra garaian, oster, 20.000tik gora izatera iritsi ziren, tropak barne.

Ortiz de Orruñoren esanetan bizitza oso deserosoa zen harresien barruan, soldaduentzako kuartelik ez zegoen eta hainbeste jenderentzako ogia egiteko laborik ere ez: “Soldaduek herri-tarren etxeetan hartzen zuten ostatu, mailaren arabera. Konde eta markesek jeneralei egiten zieten abegi, eta herritarrek, soldadu soilei”.

Aziendak ere murrizketa latza jasan zuten gainpopulazioaren ondorioz. Nekazariak idi-pareak eta animaliak galdu zituzten. Soldaduen esku geratu ziren, nola materiala garraiatzeko hala besterik gabe jateko. “Uztak ere

galdu zituzten, aziendak elikatzeke erabili baitziren. Borrokal-di hark urte osorako gosea ekarri zuen, uzta jasotzeko sasoiari gertatu baitzen”, dio EHUKo irakasleak.

Fiskalitate progresiboaren aurrekaria?

Vienako Batzarrean (1819) nazioarteko hitzarmena sinatu zuten, Frantzia eragindako ezbeharrak ordaintzera behartzeko. Galerak konpentsatzearen, eskal diputazioek kalte guztien kontua egin zuten. Azkenean, ez zuten ezer jaso, Espainiak, potentzia handiaren izaerarik gabe, presioa egiteko gaitasun oro galdu zuelako. Ortiz de Orruñok garbi du: “Prusiarrek, austriarrek eta beste guztiek kobratu ondoren, diputazioen txanda iritsi zenean, ez zegoen dirurik”.

Okupazioak iraun zuten bitartean, frantsesek ogasuna proportzionalki arrazionalizatu zutela esan ohi da. Bada, irakasleak ñabardura txiki bat dakarkigu: “Xedea ez zen gizarte bidezkoagoa egitea, biztanleria ustiatzea baizik”. Napoleonen politikaren arabera, okupazioa okupatuak ordaindu behar zuten. 1810ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Thouvenot jeneralaren agindupeko administrazio-barruti bakar batean gelditu zirenean, enperadoreak argi utzi zion dirurik ez ziola bidaliko Paristik.

Egoera horri aurre egiteko, Thouvenotek bi berrikuntza ekarri zituen: zergen unibertsaltasuna –denek ordaindu behar zuten, nobleziak eta elizgizonak barne– eta proportzionaltasuna –norbanakoaren aberastasunaren arabera ordaintzea–. Dena den, neurri liberal horiek bazuten itzalik: “Kausa inperialaren” aldeko ekarpena saritzeko, ordainagiriak diru gisa onartu ziren herri-ondasunen enkan-tean, ezer balio ez zuten paper-zatiak, alegia.

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!
*Gonbit-txartelak astebete lehenago

IPARRALDE
> Ez naiz ni Karmele Jaio
Martxoak 5, 19:00 (gazte eta helduak)

ARANA
> Magi a eta dibertsioa
Madiber (magia)
Martxoak 13, 18:00 (5-10 urte)

JUDIMENDI
> Trastelekua
Nerea Ariznabarreta, ipuin kontalaria
Martxoak 20, 18:00 (5-10 urte)

ARIZNABARRA
> Otsoak liburutegian
Iñaki Carretero, ipuin kontalaria
Martxoak 21, 18:00 (6-9 urte)

PILAR
> Lurretik sortutako ipuinak
Izaskun Mujika, ipuin kontalaria
Martxoak 22, 18:00 (3-6 urte)

HEGOALDE
> Kantari-On
Musika
Martxoak 23, 12:00 (2-4 urte)

LAKUA
> Paperezko ipuinak
Patrizia Eneritz, ipuin kontalaria
Martxoak 26, 18:00 (4-8 urte)

PRINCIPAL ANTZOKIA
> PARADISUAZ
B. Atxaga eta Jabier Muguruza
Martxoak 21, 20:30

18. KORRIKA
EMAN EUSKARA ELKARRI
> KORRIKA TXIKIA
Gasteizen: Martxoak 14, 16:00
Martxoaren 14tik 24ra
> Andoaindik Baionara
Gasteizen
Martxoak 19, 18:45

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA FINALA
> Principal antzokia
Martxoak 16, 17:30

Maite duzun hura, euskaraz!


 Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udaia



Ezker-eskuin: Patxi Viana, Jose María Ortiz de Orruño eta Emilio Larreina, Gasteiz 2013 Elkarte Historiko-ko kideak.

“Espainiarra da beste ezer izan nahi ez duena”

Emilio Larreinaren iritziz paradoxi-koa da kontua. Napoleonek Gastei-zen lehenik eta Waterloon ondoren galdu eta hiruzpalau urte geroago, Europa osoa altxatu egiten da “hiri-tarrak izan nahi dutelako, eta ez subditoak”.

Nortasun nazionalaren kontzeptu abstraktua, askatasun eta eskubideen garapenarekin ulertu behar da, bai Euskal Herrian –liberalismoaren eta tradizionalismoaren arteko tentsioak gerra karlistetan izan zuen adierazpenik gorena– eta bai Europa osoan. Ortiz de Orruñoren esanetan “guretzat funtsezkoak diren kontzeptuak –askatasuna, berdintasuna–, duela 200 urteko ikasketarik gabeko baserri-

tarrentzat zentzugabekeri hutsa ziren”.

Dena den, “askatasunen eta eskubideen” frantziar ereduak utzi du bestelako ondoriorik. XIX. mendean hasieran Frantzian bizi zen biztanleriaren erdiak baino ez zuen frantsesa ezagutzen. Euskara, bearnera, okzitaniarra, bretoaia, alemana, eta beste hainbat hizkuntza hitz egiten ziren lurraldean. Eugene Webe-*rrek Peasants Into Frenchmen* lanean deskribatzen duenez, errealtate hartatik gaur egungora prozesu luze bat jazo da.

Okupazioak iraun zuen bitartean, frantsesek ogasuna arrazionalizatu zuten, zerga unibertsal eta proportzionalak ezarriz

Faktore askok eragin dute, baina garrantzitsuenak, Frantziako Estatuaren gaitasun nazionalizazioa izan da, armada eta eskola errepublikarraren bidez: “Frantzia eta Espainia oso errealtate ezberdinak dira. Frantzian XIX. mendean amaieratik oso argi daukate zer den frantziar izatea, eta hala izan nahi dute dituen abantailen-gatik. Espainian kontrakoa gertatzen da. Cánovas del Castillok esa-

ten zuen bezala: ‘Espainiarra da besterik izan ezin duena’” dio Ortiz de Orruñok.

Oroimenetik ikasi

Gasteiz 2013 Elkarte Historikoa orain hiru urte sortu zuten hainbat pertsonak, bakoitzak bere alorretik ekarpena egiteko asmoz. Orain arte zenbait ekitaldi antolatu dituzte, eta zerrenda luzea dute oraindik gaiari jarraipena egiteko: ibilbideak Gasteiz bonapartistatik eta 1813ko gudu-zelaitik; bataila antzezteko egitasmoa; 150. urteurrena ospatzeko zabaldu zen Arabako Arma Museora bisita gidatuak... Batailaren memoriarekin loturiko zenbait proiektu ere abian dira. Esaterako, Álava jeneralaren biografia eta haren artxibo pertsonala argitaratu-ko dituzte, Sancho El Sabio Fundazioarekin sinaturiko hitzarmen baten bidez.

Elkarteko eragileen ustez, gaiak erakarpen turistiko handia izan dezake ongi aprobetxatuz gero. Hiri napoleondarren europar sarean sar liteke Gasteiz: “Europako toki askotan berrehungarren urteurrena oroitzeko egingo diren ekintzak ezagutu nahi dituzte” dio Vianak.

Arabako Diputazioko kultura sailak 80.000 euro aurreikusitu ditu oroimen ekitaldietarako –besteak beste, National Army Museumean dagoen Álava jeneralaren ezpata ekartzeko–, eta Gasteizko udalak beste 95.000 euro: “Hiriko kultur programazioaren parte garrantzitsu” izango omen da urteurrena, Encina Serrano PPko Kultura zinegotziaren esanetan. Dena den, oposizioko alderdien ikuspegi politiko ezberdinak eta krisi ekonomikoak ez dute adostasunik ekarri urteurrenaren inguruan.

“*Si vis pacem, para bellum*” esaldi latinoa datorkio gogora Ortiz de Orruñori. Bakea nahi baduzu, gerrarako presta zaitez. Eta buelta eman dio: “Bakea nahi baduzu, ez ahaztu gerraren lazturak. Europak bere sasoirik onena bizi ez badu ere, ez da ahaztu behar momentu txarragoak egon zirela. Eta garai hartan, Gasteiz funtsezko erreferentzia bilakatu zen”. ■



LUAarkitektoak
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitzaren proiektuak
 birgaitzeak
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
 lua@luark.com
 Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña

TERMOMETROA

KORRIKA 18

Nola, noiz, non, norekin... euskara ikasi?

Korrika 18k martxoaren 14an emango ditu lehen pausoak Andoainen. Hilaren 24an Baionan festa ederra egingo dute ibiliari bukaera emateko. Korrikaren aurtengo omendua ikaslea da eta AEK-k ondoko leloa aukeratu du: *Eman euskara elkarri*. Zangoak mugitu aurretik buruari eragitea erabaki zuen Korrika 18k eta lau mahai-inguru antolatu zituen *Euskara ikasi XXI. mendean* izenburuarekin. Iruñean eta Bilbon bana egin ziren.

Ondoko orrietan, Gasteizko (*Nola ikasi?*) eta Baionako (*Ikaslearen ahotsa*) saioei buruzko hausnarketa idatzi dute AEK-ko kide eta mahaion moderatzaile Benito Fizek eta Bea Sallaberryk.



DANI BLANCO

Argazkian, Errenteriako ikasle taldea, 2007an.

Babeslea: Bilboko Udala

A promotional banner for 'harrapazank' featuring the year 2013, the website harrapazank.com, and logos for Bilbao and Topagunea. The text 'harrapazank eszena sortuzank tailerrak' is prominently displayed in pink and white. The banner also includes the text 'gazte bilbotarren komunitatea' and the Bilbao and Topagunea logos.

B. FIZEK UTZIA



Benito Fiz

◆ AEK-KO IRAKASLEA

ATZERA BEGIRATZEKO UNEA ohi da omenaldia, omen- duaren merituen memoria ekartzeko unea. Gu, berriz, gerora begira joan ginen omenduaren bila, neguko ostegun batean, arrastian Gasteizko Kutxin ezagutu nahi izan genuen Korrikaren omendua: euskara ikaslea. XXI. mendek ekarriko digun euskara-ikaslearen erretratuaren bila abiatu ginen bada.

Soslai hori zirriborratzen laguntzeko lau marrazki-lari batu genituen: Josu Perales, Maite Goñi, Ainhoa Ezeiza eta Abel Camacho, eta galdera hauen bueltan jarri genituen marrazkiak: Nola ikasiko da euskara XXI. mendean? Nolakoa izango da euskara ikaslea? Zer egingo du? Zer eskatuko du?

Handik ordu pare batera ez geneukan argazki garbirik, ezta erretratu robot baliagarriarik ere, bai ordea marra ugari, norik bere irudia egiteko adina. Hona hemen utzi zizkiguten marrazkiak eta borroak. Hartu nahi dituzunak eta egizu zeure marrazkia.

Gomendatu zigun Josu Peralesek ingelesa ikasten duenari erreparatzeko, hizkuntzak ikastea ingelesa ikastea da batik bat gaur egun munduan, eta hortik datoz gero datozen gehienak, euskara ikaslearen soslaia ere bai, agian. Dena den, gurera ere begiratzeko abisua egin zigun: euskara praktikatzeko ari diren mintza-berba-solaslagun horiek guztiak oraina ez ezik geroa ere izan daitezke. Hizkuntza ikaslearen artean gero eta gehiago preziatzen –eta ordaintzen– da ikasi nahi den hizkuntzako solaskidea. Hezur-haragizko irakaslea ez da galduko, baina ekosistema horretan bizi beharko du.

LED pantaila batean hasi zen Maite Goñi marrazten, makinaren clip art-ak, zuzentzen duten makinak, gurekin hitz egiten duten makinak, baina aldi berean milaka gauza egiteko aukera ematen diguten makinak ere badira: hainbat lagunekin gauzak egin eta jarduteko, hamaika mila irakasle aurkitzeko, baita hamaika irakasleren lana egiteko ere, edo irakasle baten lana hamaika aldiz egiteko.

Pintzel iluna hartu zuen Abel Camachok orduan. Pintura geruzatxo bat baino ez ei zaie eman hainbat gauzari, eta geruza horren azpian aspaldiko horma dugu nonbait, betiko edukiak, betiko bideak nagusiki. Ikasleak berriz, baditu hainbat gauza lehen ez zituenak: testuak, materialak, aukerak... Horiek guztiak kudeatzen trebatu behar da etorkizuneko ikaslea: bere prozesua gidatzen eta ebaluatzen. Etorkizuneko ikasleak gero eta botere gehiago izango baitu.

Tonu biziagoetara egin zuen salto Ainhoa Ezeizaren paletak. Marrazkia mihisearen mugatik harago

XXI. mendeko ikaslea

eroatea aldarrikatu zuen, ikaskuntzaren alderdi informalera, eta batez ere sozializazioa. Hizkuntza sozializatuaz ikasten da eta ikasiko da, eta sare sozialak behar dira, Interneten eta porlanezko munduan, bietan. Akaso ikaslearen sareak eraiki beharko dira, une honetan faltan-edo sentitzen direnak, izan ere, euskaldunok gutxi izan, baina sareak erraz ehuntzen ditugu.

Bi orduren buruan etorkizuneko irakaslea hasi da agian bere burua ere zirriborro horiekien marrazten.

Eta pentsatuko du, igoal batez ere, ikaslearen solaskidea izan beharko duela, edo harentzat komunitate baterako zizerone lanak egin beharko dituela. Hizkuntza, pertsona horien zeregin eta harremanetan kokatu behar duela ere pentsa dezake. Hizkuntzari, forma barik, zentzua eman behar diola ondorioztatuko du baten batek.

Pentsatuko dute beste batzuek makinek lekua kendu ez diezaieten borroka egin beharko dutela. Makinak gobernatzeko modua aurkitu beharko dutela beste batzuek. Baten batek makinari lan astunak nola eman pentsatuko du bitartean. Inguruan dituen makinei probetxu nola atera beste batzuk. Makinatzen denak.

Ikaslearekiko erlazioaz hasiko dira pentsatzen, euskaltegitik kanpora hedatuta marraztuko dute batzuek: sarera edo kalera. Beste irakasle batzuekin konpartituta ikusiko dute beste batzuek euren burua. Eta ikaslea boterea hartuta irudikatuko dute batek baino gehiagok, zer eta nola ikasi nahi duen argi, ebaluatzeko gai ere bai, irakaslearekiko menpekotasuna galduta, neurri handi batean.

Dena orain bezalaxe ikusiko dutenak ere izango dira, horrela nahi dutelako batzuek edo geroa dagoeneko hemen dagoela ikusi dutelako beste batzuek.

Kutxira irteten eta neguko zero beltzari begira gertzea nahiago du baten batek, bere marrazkiaren tonu nagusirako aproposa. Beste batzuek berriz, ostegun gauean Kutxin irribarrez dabilzan gazteen aurpegietatik aukeratuko dute euren erretraturako aurpegia. ■

PETROMIRALLES
GASOLINA-ZERBITZUGUNEA

Karrika industrialdea / 6. partzela
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 305 058

24 ORDUZ

ANDOAIN
N-1 errepidea
445-446 iteera

63 hornitze gune Petromiralles Cards-ekin

GASOLINA GASOLIO GASOLINA GASOLINA DIESEL AdBlue



GAIZKA IROZ

Zer dakigu euskara ikasteaz?

Bea Sallaberry

♦ AEK-KO IRAKASLEA

EUSKARA IKASI 21. MENDEAN lemapean, gure hizkuntzaz, ikaste eta erabiltze bideko bizipenen partekatze elkartu ginen. Lau pertsona, lau ibilbide: eleketa, euskararen eta ikastearen alderdi ezberdinak bizi izan dituztenen ahotik zuzenean argitara ekartzeko parada genuen. Euskaldun berrien solasetan euskararen kaleidoskopiaren alderdi koloretsu bizi eta esperantzaz beteak agertu zitzaizkigun: erantzun zenbait, galdera andana dilingo.

Lehenik, euskara borroka eta frustrazioa da. Hasteko, klaseetara joateko eskatzen duen antolaketa eta indarrarengatik, malgutasun eta maiz sakrifizioak aginduz, lagun erdaldunak baztertuz. Ez balitz aski, zinezko borroka gertatzen da erabilerarena: bururatu ideien formulatzeko nekeziak, ausarta izan beharra, parada urriegiak gertatzea interlokutore euskalduna ukateko edo kooperazio erlatibo eskaini izana, gaineratu behar denean nornahiri euskaraz zuzenduz hartzen den errefusaren arriskua, baita epaiarena ere. Nork bere burua bortxatuz, euskara nahikeria eta indarraren menpe da: sorpresarik gabe, euskaraz zuzentzea desmarta militantea da, ia beti, nork bere baitatik saiatzeko duena.

Euskara ez da beti integratzailea, maleruski gutxiegi, ez baita batere hemen ongi bizitzeko faktorea. Gainera, proiektu sozio-politiko-kulturalei lotu taldeak sortzen direnean ez dira kasik sekula euskaraz sortzen, komunzki, bertako hizkuntzan gauzatzea bigarren mailan ezartzen edo berantago txertatzen da. Bizkitartean, gakoa hor dago sustut.

Behingoz, euskara erraza da. Euskara ikastea zaila zela zioten aurreiritzi guziak porroskatu ziren han berean. Ez baita gutxi. Lekukoetarik batek azpimarratu bezala, zaila dena ez dela euskara ikastea, euskararen egoera baizik eta horren aldatzea. Haratago euskara plazera ere zaie, bai klasean iragan momentuengatik, bai ezagutu jende eta taldekideengatik, bai euskaraz bizi une bakoi-tzarengatik.

Noski, euskara unibertso unibertala da. Ahanzten baldin badugu ere batzuetan, transmititzen duguna ez da hizkuntza bat. Ez da hori bakarrik. Gure ikasgeletara etortzen direnei ematen diegu mundua, gurea eta gaineratekoa: kultura bat, herri bat, bizimolde eta balore batzuk nolazpait baita gaineratekoen ikusteko eta bizitzeko era bat. Eskaintzen duguna hemengoen da, baita beste guziena ere, ire-

kia, munduari so eta aldi berean mundua bere baitan bil eta azal dezake; zeinahi beregana dezake batetik eta zabal bestetik. Gainera, nahi duenarentzat euskal komunitateak besoak zabalik dauzka.

Oroz gaintetik, euskara eraldatzailea da hizkuntza ezagutzeko enbeiatik menperatzerainoko bidaia intimoan zehar. Euskara ikastea, berreskuratzea, motibazio pertsonaletan oinarritzen da maiz, eten den transmisioaren minberak edo horren lehen katebegia izateko tirriak bultzatua, eta honen eskuratzeko beti izaten da abentura humano luze, aberats eta aberasgarria, gure baitan barna aldatzen gaituena, gizartea aldatu nahi lukeena.

Azkenik eta gerorako, euskara sortzailea da: alternatiba hizkuntza, harreman eta komunitate sortzailea, sare eta egitasmo berrietako ateen zabaltzaile, inguruarengan eragile. Behin jasota ez daiteke bazterrerara utz.

Argi eta ilun guzietatik bakar batzuk baizik ez ditugu lerro hauetara ekartzen ahalko, argikien agertu eta partekatuenak. Dударik gabe, ikaskuntzaz ari garenean, alde horiek oraindik gutxiegi ikerturik darraite eta tarte hori hartzea merezi luke, orokorrean euskalduntzea egoki eramateko. Azken batean, zer dakigu xuxen euskara ikasteaz? Batez ere humanoki suposatzen duenaz? Oro har alde didaktikoa gaituzten duten parametroez? Ez daude irakasleen esku baina prozesuaren arrakasta baldintzatzen dute, premiazkoak dira, gure lanak bermerik eta gerorik ez bailezake ukan ikastea xeheki zer den ulertuko ez duguno. ■



URPA
autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. · 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

ASESORIA

Gabilondo

AHOLKULARITZA

Kale berria, 1 Bajo · 20140 Andoain
asesoriagabilondo@yahoo.es
Tel/fax: 943 30 30 25

BESARO

LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



TERMOMETROA

AHT LAPURDIN

Zundaketak ezkutuan

Gendarmeeek bi lagun atxilotu zituzten Biriatuan zundaketak baimenik gabe egiteagatik. AHTren kontrakoek kezka azaldu dute, tren linea eraikitzeko lanak ez direla gelditu erakusten baitu horrek.

| JON TORNER ZABALA |

POLIZIAK D2S International enpresako bi langile atzeman zituen otsailaren 21ean Biriaturako lur sail pribatu batean, AHTren linea berriaren balizko bibrazioak neurtzen ari zirenean, zundaketak egiteko baimenik ez zutelako.

Lur-sailaren jabeak, RFF konpainiak azpi-kontrataturiko D2S enpresako bi langileak ikusi zitue-nean, poliziarri dei egin zion, baita AHTren aurkako Nivelles-Bidasoa elkarteko kideei ere. Denbora gutxian hogeitun bat lagun bildu ziren bertan, zundaketak oztopatu asmoz. Jendarmeeek Hendaia-ko polizia-etxera eraman zituzten bi langileak, ez zituztelako Herri-ko Etxearen eta Prefeturaren baimenak.

Lurjabeak eta Nivelles-Bidasoa elkartek salaketa bana jarri zuten, "etxera bortxaz sartzeagatik". Zigor bezala, euro sinboliko bat ordaintzeko eta zundaketaren datuak deuseztatzeko eskatu dute. RFFko ordezkariak, ordea, prefetaren baimena zutela esan dute, baita Herriko Etxea jakinaren gainean zegoela ere. Teknikariek gaizki ulertze bat gertatu izana posible dela gaineratu dute.

Gertaerak AHTren aurkako kolektiboen kezka piztu du, RFFk jakinarazi baitzuen baliagarritasun publikorako inkesta egin arte ez zituela zundaketak abiatuko. Inkesta hori 2013ko bigarren erditik aurrera zen egitekoa. ■



GAIZKA IROZ

AHTren aurkako ekintzaileak Biriatur zundaketa lanak eragozten.

Euskalerria Irratia eta puntuaketa bidegabea

EUSKALERRIA IRRATIKO TALDEA ez dago ados urte hasieran egindako lizentzia banaketarekin; beste behin kanpoan geratu da Iruñerriko irratia, Cope eta SER aurretik dituela. Patxadaz irakurri dituzte irratien balorazioen xehetasunak, eta programazioak baloratu dituztenean irradi batetik bestera alde handiak egon direla ikusi dute. Programazioaren atalean SERek 10etik 9 puntu ateratu ditu eta Copek 9,5. Aldiz, Euskalerria Irratiak 2 puntu baino ez. Hala ere, aldeak arrazoiak dauka. Copek eta SERek Madrilgo emandegi nagusie-

kin egiten dituzten deskonexioak kontuan hartu ditu epaimahaiak; Euskalerria Irratiaren kasuan ordea, programazioaren zati bat baloraziotik kanpo utzi dute: epaimahaiak ez du kontuan hartu Iruñerriko irratia Euskadi Irratiarekin egiten dituen deskonexioak.

Bitartean, irratiko kideek aurrera segiko dute abian duten *Zuen Baime-narekin* bazkideza kanpainarekin eta martxoaren 6an Nafarroako Diputazioaren aurrean argazkia aterako dute irratia babesten ari diren herri-tarrekina batera.



GORKA BEREZIARTUA

Bahea

Marije Manterolak Txerra Rodriguezen *Garaigoikoa* blogean esanak:

“Euskararen biziberritzea ofizio eta afizio dugunok, euskararen erabilera(eza)ren inguruko proposamen anitz izaten ditugu eskuartean –ikerketa, ondorio, interbentzio, ebidentzia eta abar–. Soziolinguistika Klusterrak modan jarri duen hitz berriren bat, Udaltop-ek mahaigaineratu duen egitasmo interesgarriren bat edota erabilera neurtuko duen aplikazioa, adierazle berriz hornitua.

Asko dakigu eta dihardugu baina ez dugu asmatzen eza-gutza hori hartzaile talde arruntarengan guk nahi adinako

eraginkortasunarekin helarazten. (...) Egia da egon badaudela esperientzia oso interesgarriak: Ebete, Auzoko, Telp, Badu,bada erakusketarako sortutako estreslinguistikoa eta beste hainbat; ziur zuk ere ezagutzen duzula besteren bat. Baina egia da, aldi berean, ez dugula asmatu soziolinguistikan dugun ezagutza mardulari guk nahi adina etekin aterazten. Ez garela herritarrengana nahikoa iritsi, ez dugula euskaltzaletasuna nahikoa barreiatu; azken finean, gutxi eragin dugu hizkuntzaren biziberritzean, erabilera”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Enpresak “hiltzen ari dira” ala hil egiten dituzte?

AZKEN ASTEOTAN EAeko patronala, izan Confebask edo Cebek, honako mezua zabaltzen ari da: enpresak “hiltzen ari dira” eskaeraren beherakadagatik. Diotenez, 2008ko maiatzetik 7.000 konpainia desagertu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta iragan urtarri-la izan da hilabete kaskarrenetakoa. Mezua aprobetxatu dute ogasun foralen presio fiskal handiagora arbuia-tzeko eta sindikatuak lan harremanen okertzea ekarriko luketen hitzarmenak eskatzeko.

Patronala oso otzana izan da Espainiako CEOEki-ko eta bera bezain kapitalista da; oso ondo dakizki zein diren enpresak “hiltzen aritzeko” arrazoi nagusiak. Badaki ez direla “hiltzen ari”. Badaki ito eta hil egiten dituztela eta badaki zein den hiltzailea. Sistema kapitalista da, bere kudeatzaile politikoen eskutik –txandakako administrazio eta gobernuak–, eredu ekonomiko eta sozial zehatza inposatzen duena. Austertitate politikak eta gastu publikoaren murrizketa inposatzen duen eredu da, enpresak eta enplegua

sustatuko lituzkeen hazkunde ekonomikoaren eredu beharrean. Eta gobernuetatik datozen politika horiek, BEZaren igoera kasu, besteak beste kontsumoaren beherakada eragiten dute. Bankuek ez dituzte kredituak ematen. Ez dira gutxi “galerak sozializatu eta etekin pribatizatu” printzipioari jarraitzen dioten enpresariak. Horrek guztiak milaka enpresa txiki eta ertain itotzera daramatza; azkenean desagertu egiten dira, eta haiekin batera milaka enplegu ere bai.

“Larrialdi nazional” egoera hau konpontzeko, Euskal Herriaren hitzarmen bat behar dugu, aldaketa sozial eta ekonomiko ekarriko duena. Kontuan izan behar da langileak izan direla orain arte krisiaren ondorioak euren haragitan gehien jasan dituztenak. Erreforma fiskal bateratuak eta iruzur fiskala pertsegitzeak, nahikoa baliabide ekarriko luke guz-tion egoera arintzeko.

Juan Mari Arregi



Istripu atomiko larri batek Frantzia kiebran utziko luke

Three Mile Islanden (Harrisbourg, AEB) 1979an gertatutako istripu larria gaur Frantzian pasatuz gero, kudeatzeko modukoa litzateke. Aldiz, Fukushiman kiskali diren 4 erreaktoreetako bat gisa berean kontrolik gabe hondatuko balitz, Frantziak 430.000 milioiko galerak nozituko lituzke. Tamalez informazio hau oharkabean joan da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LUDIVINE PASCUCCI-CAHEN ETA Patrick Momal ekonomialariek egin dituzten kalkuluak fidatzekoak ote dira? Hala esan liteke, lana nork eskatu eta nork plazaratu dien kontutan harturik. Institut de Radioproteccion et de Sûreté Nucléaire (IRSN) da Frantzian nuklearren inguruko informaziorik onena kudeatzeko duen erakunde publikoa. Espainian Consejo de Seguridad Nuclear denaren baliokidea. IRSN-ren ordezkariaren barruan aurkeztu dute Pascucci-Cahen eta Momalek ikerlana *Eurosafe* forumean, iazko azaroan.

Towards Enhanced Robustness in Nuclear Safety zen forumaren titulua: Segurtasun Nuklearraren Sendotasuna Handitze Aldera. Antolatzaile, IRSNz gain segurtasun nuklearrak Belgikan okupatzen den Bel V eta Alemanian gauza bera dagien GRS. Bruselako Sheraton hotelean esango zirenak entzuteagatik 650 euro pagatu behar zen. Egitaraua finkatu zuten batzordeko kideetan zegoen Antonio Munuera Bassols, CSN espainiarraren ordezkari.

Azaroaren 6an, asteartea, forumeko bigarren mintegiaren barruan bazkalondoko 13:30etan aurkeztu zuten beren lana Ludivine Pascucci-Cahenek eta Patrick Momalek: “*Massive radiological releases profoundly differ from controlled releases*”, euskaraz

emango lukeena “Isuri erradiaktibo masiboak oso ezberdinak dira isuri kontrolatuetatik”. Titulua hain abstraktua izateak ekarri ote du ikerlanak barruan dakarren bonbak publikoan eztanda ez egitea?

10 orri laboritu agiriak, ingelesez bezala frantsesez (*Les rejets radiologiques massifs sont très différents des rejets contrôlés*) Interneten errez aurkitzeak. Hemendik aurrerakoa horien laborpena da.

Balizko istripu nuklear baten koste ekonomikoak kalkulaterakoa, denak hartu behar dira kontutan. Mundu osoan industria nuklearrak presio egiten du ekonomiazko argudioak erabiliz segurtasunaz okupatzen diren agintarietako eztabaidetan. Horregatik IRSNk 2005etik egiten ditu istripu nuklearraren kosteen kalkuluak.

Hauek koste guztiak kontutan hartzea garrantzizkoa da, segurtasunean inbertitu behar dena horien arabera erabakitzen baita. Arazoetako bat da zenbait kalte kalkulatzeko oso zaila dela, baina beti ere hobe da kalkuluetan okerrak egitea arrisku bat zenbatu gabe uztea baino.

Three Mile Islandeko eta Txernobylo istripuez geroztik Europan eta AEBetan zenbait kode antolatu dira gertatutako kalteez egin kalkuluen gainean. Baina beti istripuaren lekuan bertan edo inguruan gerta-

Wikipediatik hartutako argazkian, Saint Laurent-des-Eauxeko zentral nuklearra, eguzkilo alorren erdian. Paristik 100 kilometrorra Orleans hiri ondoan dagoen zentral honek bi erreaktore dauzka, bakoitza 900 MegaWatt-eko. Erreportajearen aipatzen den Pascucci-Cahen eta Momal ekonomialarien azterketan aurreikusi den hipotesia landuta dago horrelako bakar bat kontrolatzen kanpo geratzearen aukeraren gainean. Fukushima Daiichiko hondamendia eragin zuten erreaktoreetatik bat 460 MWeko zen eta beste hirurak 784 MWekoak. Baionatik errepidez 257 kilometrorra dagoen Blayaiseko zentralak, Bordeleko bokalean, lau erreaktore dauzka 900na MWekoak. Agen ondoan, hau ere Baionatik 257 kilometrorra *Via Michelin*en kalkuluetan, dagoen Le Golfecheko zentralak bi erreaktore dauzka bakoitza 1.300 MWekoak. Arabako mugan, Garoñakoak bat 466 MWekoak. Gure kalte kalkuluen berririk ez dugu.

tutakoak dauzkate kontutan. Aldiz, erradioaktibitateagatik kalteen eremua askoz zabalagoa da. Nekazaritzan, esaterako, kutsatutako labore eta abereak saltzeko debekua gain, sektore osoak nozitzen ditu pikardiak beren produktuak susmagarri geratzen direlako.

Aipatu kontabilitateak bost atal dauzka. Bat, lekuan bertan diren galerak: deskontaminatzea, zentralaren itxiera eta eraistea funtsean. Bi, zentralen kanpokoak: larrialdiak, osasun zerbitzuen gastuak, koste psikologikoak, nekazaritzaren galerak. Hiru, irudiagatikoak: labore eta elikagaien esportazioen galerak, turismoarenak, beste esportazioen gutxitzea. Lau, elektrizitate produktioaren murrizketa. Bost, kutsatutako eskualdeen kudeaketa, errefuxiatuak, eta abar.

Mugarik gabeko atomoak

Pascucci-Cahenek eta Momalek bi istripu hipotesi nagusi antolatu dituzte. Lehena da istripu larri bat baina ez masiboa. Hau da, AEBetan 1979an Three Mile Islanden gertatutakoa bezalakoa: erreaktorea bera kiskaltzen da, erradioaktibitate kopuru bat ateratzen da zentralatik kanpo baina modu kontrolatu samarrean.

Istripu honek Frantzian —kalkuluetan ez dira sartu Europako beste



galerak eragingo lituzke. Bakarbakarrik inguruko eskualdeetan sortutako kutsaduragatik BPGaren %5 baino gehiagokoak, 110.000 milioi. 100.000 pertsona lekualdatu beharra. Eragingdako kantzerren tratamendua. Zakarretara bota beharreko laboreak.

Fukushimakoaren aldean, Frantziako erreaktore baten lehertzeak nekazaritzako eremu zabalak hartuko lituzke. Ardogileentzat hondamendia, urte luzez landutako irudia pikutara, berdin nekazaritza osoarentzat. Gauza bera turismoarentzako, Frantzian honek daukan garrantziarekin. Argindarrari dago-kionez, aurreikusia dagoena baino lehen jo beharko luke Hexagonoak beste iturrietara, urte luzez elektrikatuz urri egongo litzatekeela.

Erreaktore nuklear baten funditzeak esan nahiko luke Frantziaren BPGaren %20ren galera, 10 urteko hazkundera. *Shock* honek mugimendu politiko eta sozialak ere eragingo lituzkete: nola egiten dio aurre 430.000 milioiko galerei 2011ko aurrekontuan 286.000 milioi -91.000 milioi zorretan utziz- gas-tatu zituen estatu batek?

Honaino IRSNko ekonomialarien ikerlana. Hortik aurrera galderak. Azken ohar batekin: Frantzia ez da Japonia, uhartea. Erradioaktibitateak ez du frontierarik errespetatzen, berdin pasa liteke zentralak ixten ari den Alemaniara, Suitzara edo guregana etorri. Azak besterik jango ez genituela mehatxatu gintuzten arren Lemoizi, uko egin genion euskaldunongaino. ■



herrialdeak, frantsesekin muga egiten dutenak, ikerlariak aitortu dute garbi- 120.000 milioi euroko kalteak eragingo lituzke. Konparazio bat egiteko, Toulousen 2001ean AZF fabrika lehertzea edo Erika petrolio-ontzia hondoratzea istripu oso handitzat jo dira, bakoitzaren kalteak 2.000 milioi euro inguruan ipiniz.

Frantziaren Barne Produktu Gordina (BPG) bi bilioi ingurukoa izanik, istripu larri batek leharke BPGaren %6ko galera, 3-6 urteko hazkundera adinako. Horrelako muturrekoa Frantziak kudeatu ahal-ko luke. Hori bai, istripuan asko jokatuko lukete eguraldiak eta beste hainbat faktorek; ekonomialariak argi utzi dute hipotesi honen bertsi- gozoena 50.000 milioitara

mugatuko litzatekeela, baina oker- renean 240.000 milioi ere harrapa- tuko lituzkeela.

Bigarren hipotesia: istripua larria izateaz gain, isuri erradiaktibo masi- boak sortzen dituen. Txar honetan ere egileek tentuz jokatu dute, ez dute aztertu Fukushiman bezala lau erreaktore urteza, 900 MegaWatte- ko bakar bat baizik. Alegia, Bordele ondoan, guregandik 300 kilometro- ra, 900 MWteko lau erreaktore dauzkan Le Blayaisen bakar bat matxuratzen dela, era inkontrola- tuan, hori bai.

“*Un accident nucléaire majeur en France provoquerait une catastrophe européenne ingérable*”. Ezin kudeatuz- ko hondamendia litzateke. Fran- tzian bertan 430.000 milioi euroko



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Aljeria 1962, Katalunia 2014

TXIKI BENEGAS, PSOEko diputatua (*El País*, 2013-2-21): “Espainiar lurraldearen zati bat banatzeko proposatzen den erabaki eskubide hori ez da eskubide bat; nahi bat izan daiteke, helburu edo aldarrikapen politikoa, baina ez eskubidea”.

Arrazoi askok eragin zuten XX. mendeko deskolonizazio prozesuetan, baina bi ardatz ziren. Bate-tik, herri kolonizatuen borroka eta, bestetik, metropoliek ezin zioten eutsi zapalkuntza eta gerra egoerei galera ekonomiko handia izan barik. Eta gainera, mendebaldearen ekonomi-hazkunde erraldoiak, kolonialismoaren eraldaketa zekarren apurka.

XX. mendean, autodeterminazio eskubidea medio, dozenaka herrik lortu zuen independentzia. baina prozesu horrek ez zuen bideratu estatu zaharretan zein berrietan ziren herrien eskubideen auzia. Pariseko edo Londreseko ezker/eskuinarentzat, Aljeriak, Libiak, Keniak, Irakek... ez zuten burujabetzarako eskubiderik, erabakitzeko eskubiderik. Ezta gaitasunik ere, haien ustez.

Frantzian edo Erresuma Batuan ongizate estatua eraikitzen ari ziren une berean, beren kolonietan lan behartua, apartheid, tortura eta hilketak egunerokoak ziren milaka herritar afrikarrentzat. Hau da, posible zen uztartzea aldi berean demokrazia etxean eta zapalkuntza basatiena kolonietan.

XXI. MENDEKO Europar Batasunean, beraz, posible ote da uztartzea Estatuaren demokrazia eta estaturik gabeko herriak erabaki eskubide gabe uztearena? Azken finean hor da auzia? Eskoziak, Kataluniak, Flandriak, Euskal Herriak... ba al dute burujabetza-

rako eskubiderik? Euren etorkizuna erabakitzeko eskubiderik?

Orain arte EBk ez du erantzun argirik eman, batzuetan bai, besteetan ez: Alemaniak Kroazia babesten badu bai, AEBek Kosovo babesten badute ere bai, SES-Beko zapalkuntza agerian uzteko balio duen neurrian Lituaniakoa ere bai... Baina Eskozia eta Katalunia Erresuma Batua eta Espainiaren barne arazoak dira, EBk ez du herri horien eskubideak bideratzeko doktrina juridiko argirik babestuko.

Alde horretatik, une arras interesgarria bizi dugu Europan. Erresuma Batuak onartzen du Eskoziaren burujabetza eskubidea eta Espainiak Kataluniarena ez. Eta gauza bat argi dago, estatu gabeko herri batek inoiz ez duela bere burujabetza lortuko, erabaki eskubidea indarrean jartzeko borondate politikorik ez badu. Gero etorriko da hori akordioz edo konfrontazio politikoz egin behar den, baina erabaki eskubidea indarrean jartzeko saiakera politikoa saihestezina da. Herri bakoitzak erabaki behar du bere abagunea, beti ere herritarren gehiengoa bildu barik posible ez dela argi izanik.

Madrilek ez du euskal herritarren erabaki eskubidea onartuko EAJk 2015ean autogobernu proposamen berri bat egingo diolako

Arrazoi askorengatik, gatazka biolentia da estatu gabeko herriek saihestu behar dutena, herriek ezer gutxi baitute irabazteko esparru horretan. Eta gainera, egungo

Europar gaitza da irudikatzea Espainiako tankeak Bartzelonako kaleetan gora eta behera. Gaitza, baina ez ezinezko.

Horregatik da ezinbesteko askatasun prozesu hauek zilegitasun demokratiko handienarekin babestea. Euskal Herrian ere konfrontazio demokratikoaren bide hori bultzatzea ezinbestekoa izango da, benetan erabaki eskubidea nahi bada. Ea zertan den Kataluniakoa, baina Madrilek ez du euskal herritarren erabaki eskubidea onartuko EAJk 2015ean autogobernurako proposamen berri bat egingo diolako. Burujabetzarako indar metaketa ezinbestekoa da eta hori ikusi nahi ez duenak badaki ez duela erabaki eskubiderik lortuko. Gainerakoa erretorika da.

Espainiaren –eta Europaren– egungo krisi garaia aproposa da horretarako eta ez litzateke trena pasatzen utzi beharko. Gainera, sinesmen handia behar bada ere, ezin baztertu hori bera bake prozesuan lortzea, baina badirudi honek gehiago balioko duela gatazkaren ondorioak bideratzeko eta elkarbitza hobetzeko, eta ez hainbeste erabaki eskubidearen arazo politikoa konpontzeko.


Indar armatuaren erabilerarik izatekotan, izan dadila estatuena, badituzte horretarako proposamen franko. Txiki Benegas (*El País*, 2013-2-21): “Hau [erabaki eskubidea] paktatua eta aukera bake-tsua izan daitekeela pentsatzea are inozokeria

handiagoa da. Nekez uka dakioko Espainiar lurralde batasuna defenditzeko eskubidea”. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Bilboko Kafe Antzokia



Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2



Erritmoa, kazetariaren batuta
Jexu Eizagirre Portillo


Jexu Eizagirre Portillo

5 liburu opari

Hernani GIPUZKOA

www.kronika.net
www.dobera.com

3



Willie Buck
with J.L. Pardo & Quique Gómez

Songs for Muddy THE MADRID SESSION
5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2357. Argia)

IRUÑEKO PLANETARIO

- Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)
- Ana Lobeiras Carlos Garaikoetxea (Berroeta)
- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)

BERIAIN 19+2 liburua

- Jabier Albizu Apaolaza (Segura)
- Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
- Eihar Egaña García (Donostia)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Eneko Gorri - Mairie De Biarritz
Herriko Taberna (Biarritz)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Mahai takoa

- Eneko Maioz Ganboa (Orexa)
- Errose Aurrekoetxea Gurtubai (Igorre)
- Belen Altuna (Zarautz)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)


ILLIMANI liburua

- Jon Caballero Gomez (Irun)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea



Bixente ARGIA_{rentzako}



1978. urtean

Bixente Ameztoyk

Zeruko Argiarako egindako

36 azal.

Bilduma honek

Joseba Sarrionandiaren

hitzaurrea darama.

- 36 lamina
- Karpeta
- 210x280mm.



· Prezioa: 20€

· Harpideentzako: 15€